



Goierritarra

185. zenbakia

2000-9-5

Ordiziako azoka
berezia
irailaren 6an



Azoka
ekologikoa
Zerainen



Goierriko
bertso-eskolak
18 urte



Ordiziako
rugbya
indarberritu
nahian

Betiko konfidantza
eta profesionaltasuna

J. M. Barandiaran 1 ORDIZIA
Tel.: 943 16 00 51 - 686 32 05 15

nick's
ENGLISH CENTRE

Kurtso hasiera

Irailak 18

Izen ematea

Irailaren 4tik aurrera

Arratsaldeko 6etatik 8etara

GIPUZKOAKO NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN VI. AZOKA



IRAILAK 17 ZERAIN

9:00etatik 14:00etara azoka
17:00etatik abe mariatakoa
jo arte erromeria

ZERAIN PARKE KULTURALA



- Herri Museoa, Larraondo Zerrategia, Aizpeako Meategiak, Kartzela.
- HARIZTI-ERDI ATERPETXEA
- MANDIOA DENDA: herriko produktuak, artisautza
- INFORMAZIO BULEGOA: urte osoan zabalik

Herriko Plaza z/g Tel: 943 801 505 Faxa: 943 801 606 E-mail: mandio@rebestb.es

ANTOLATZEN DUTE:



ZERAIN
DENDAKO
FUNDATZIOA

IDIAZABALEN ETXE ADOSATUAK



- 3 logela.
- Lorategia 66/99 m².
- Kalitate goreneko materialak. Adarra kalitatea.
- 2 kotxerentzat garaje itxia.
- Solarium, terraza.
- Trakaskuntza zentrua, Polikiroldegia,... inguruan.



INMOBILIARIA

adarra

ZURE NEURRIRA ERAIKITZEN DUEN INMOBILIARIA
LA INMOBILIARIA QUE CONSTRUYE A SU MEDIDA

ETXEEN ENTREGA DATA: 2001. urteko 4. hiruhilekoan

686 414 901 - 943 450 721

Non zer

6 Eskutitza

8 AHOLKUA: Osteoporosia

9-11 Euskal astea Ordizian

12-13: Joseba Insausti artzaina

14-15: Zerainen azoka ekologikoa

16-17: Goierriko bertso-eskolak 18 urte

18-28 KRONIKAK

ORDIZIA 18: festak.

OLABERRIA 19: San Joan txiki. ZALDIBIA 20: Pelotari txapeldunak. BEASAIN 21:

Igartza auzoko festak. ATAUN 22: Lo lekuak. IDIAZABAL 23: Argentinara bisita.

LEGOERRETA 23: Kirol ekintzak. ZEGAMA 24: San Bartolome festak.

MUTILOA 25: Lierniko festak. LAZKAO 26: Ekain eta Emilio Sidneyra.

GABIRIA 27: Jaien ondorena. EZKIO-ITSASO 27: Kizkitzako eguna. ZERAIN 28: Kultur astea.

29: ZAHARRAK BERRI: Mikeli Lopetegi.

30-31: KIROLA: Ordizia Rugby taldea.

32: DEBALDEKO IRAGARKIAK

33: AGENDA

34: FOTO ZAHARRA: Itsasoarrak.



300.000 pezetako bidaia GOIERRITARRA aldizkariaren aldeko zozketa

railarekin batera, aurtan ere, GOIERRITARRA aldizkariaren aldeko zozketa martxan da. 300.000 pezeta bidaia zozketatzen du GOIERRITARRA aldizkariak.

Saria honakoa da: irabazleak, nahi duenean, nahi duen lekura eta nahi duenarekin joateko aukera izan du. Hori bai, datorren urteko irailaren 30a baino lehen egin beharko du bidaia. 300.000 pezeta horiek bidaia egiten gastatu beharko ditu.

200 pezetan daude salgai errifak Goierriko leku ezberdinetan. Hurrengo alean izango duzue leku horien zerrenda zehatza.

Abenduaren 13an, Ordiziako No-

tario aurrean egingo da zozketa eta abenduaren 20ko alean kaleratuko da zenbaki irabazlea. Hilabeteko epea izango da saria jasotzeko.

Dohainik banatzen den aldizkaria da GOIERRITARRA eta oraintxe daukazu errifatxoren bat edo beste erosiz goierritarron aldizkaria laguntzeko aukera. Guztioan laguntza behar-beharrezkoa du GOIERRITARRA aldizkariak, orain artean bezalaxe, hamabostero kaleratu ahal izateko. Saltzen laguntzeko prest bazaudere, gustura hartuko dugu zure laguntza.

Aurrez eskerrik asko guztioi eta zorte on!

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkarte
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxa: 943 88 27 19
E-mail: goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre Maketazioa: Mikel Albisu Publizitatea: Argider Mujika Erredakzio
Batzordea: Mikel Albisu, Joseba Telleria, Ane Martin, Loinaz Agirre eta Estitxu Imaz. Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Elordi Garzia, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Agurtzane Bikuña, Saroi Jauregi, Iñaki Gurrutxaga, Aimar Maiz, Mari Flor Mendizabal, Iñaki Ugalde, Laida Oiartide, Inko Mujika, Josu Irastorza eta Biolur elkarte.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)
Tirada: 8.000 ale. SSN: 1132-0907 Lege gordailua: SS-926/89 Frankeo kontzertatua: 37/76
GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria

Juan Mari Jauregi hil du ETAk

Uztailaren 29an, ETAk, Juan Mari Jauregi legorretarra, PSOEko kide eta gobernadore zibil ohia, hil zuen Tolosako Fronto tabernan. Buruan bi tiro egin zizkieten etakideek eta ordubetera hil zen Tolosako Asuntziorikotik erietxean.

Gipuzkoako Gobernadore Zibila izan zen 1994-1996 artean. Duela hiru urtetik Txilen bizi zen, ETaren beldur.

Frankismo garaian hasi zuen militantzia politikoa, eta Burgosko epaiketaren aurka protestatzeagatik atxilotu eta espetxeratu zuten. 1973an PCE alderdian afiliatu zen. Gero PSOEra pasa zen. Tolosako zinegotzi izan zen PSOE alderditik. Oporretan zegoen Tolosan hil zutenean eta Juan Mari Jauregi ez zuen bizkarzainik.

Tolosako Udalarekin batera, Legorretako Udalak ere atentatua gaitzetsi zuen, EHren abstentzioarekin. "ETAk jakin dezala gizartea zaitzea bilatzen duten ekintza hauekin beti aurrean izango gaituela", zioen besteak beste gaitzespen mozioak. Bilkura ixilak egin ziren Legorretan Jauregiaren hilketari salatzeko.

Abuztuaren 11ko Euskaldunon Egunkarian ETak bere gain hartu zuen Juan Mari Jauregiaren aurkako atentatua. 1994 eta 1996 bitartean Gobernado zibila izateaz gain, "orain Ameriketako SESIDENTZAT lan egiten zuela" adierazi zuen.



Juanito Rubio


Uztailaren 7an Juanito Rubioaren aurka egin zen atentatu saiakera ETAk hartu du bere gain, abuztuaren 11n Euskaldunon Egunkarian ETAk azal dutako agirian. ETaren esanetan, "Euskal Herriaren aldeko zerga ordaintzeari uko egiteagatik" jarri zuen Rubiotarren autoan lehergailua.

Pingon enpresan lehergailua

Abuztuaren 24an Lazkaoako Pingon enpresan, kilo eta erdi lehergailuz osatutako lehergailua lehortarazi zuen Erztantzak. Herriazingo Sailak lehergailua ETarena izan daitekeela uste du.

Gonzalez Rodriguezen senideen auto istripua

Ezkio-Itsasoko Gonzalo Rodriguez euskal presoaren semeak eta bere lagun batek auto istripua izan zuten abuztuaren 18an. Galiziako Curtis espetxean dago preso Rodriguez eta Santiago inguruan izan zuten istripua. Ezbeharraren ondoriz, lepoaldean eta bizkarrean sentitu zuten mina biek eta autoa hondatuta gelditu zen. Hala ere, bisita burutu ahal izan zuten.



**ASTELEHENETIK OSTEGUNERA
ETXERAKO ZERBITZUA**

Pizzak, Pasta, Sandwich-ak,
Plater Konbinatuak, Ogitaratekoak...

Zaldizurreta, 7 BEASAIN ☎ 943 889 844

Udalak sustatutako etxebizitzaren salmenta



ALTZAGA

AZKEN ETXEBIZITZAK!

Guztira 180m² + lorategia

Informazioa:

Lanegunetan: 943 16 21 92

Larunbatetan: Altzagako Udaletxean (10:00-13:00)



AUSGEGI

Urdaneta, 41
☎-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✳ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✳ Berogailuak
- ✳ Iturgintza
- ✳ Zeramika erakusketa
- ✳ Bainuko altzariak
- ✳ Erreforma osoak



Kirola**Joseba Beloki**

Lazkaoko txirrindulariak saihets bat pitzatu duela eta, ez da parte hartzen ari Espainiako Itzulian. Frantziako Tourrean hirugarren egin ondoren, faboritoen artean zegoen. Munduko Txapelketarako sendatzeko itxaropena du Belokik.

Aitor Garmendia

Itsasondoko txirrindularia talde bila dabil, denboraldia amaitzearekin batera Banesto taldearekin duen kontratua amaituko baitzaio. Gustura, Euskaltelen korrituko lukeela esan du Garmendiak.

Goierritarrak Iromanen

Alemaniko Roth hirian, 2800 lagunek parte hartu zuten ironman proba gogorrean. Hauen artean 4 goierritar izan ziren: Etor Mendia lazkaotarra, Jon Aranburu ordiziarra eta Igor Mertxan eta Aitor Eskalante beasaindarrak. Jonek bere lehen ironmana izan zuen alemaniakoa. Denak ere Antzizar triatloi taldekoak dira. Hauez gain, Andoni Aramendi talde bereko lasartarrak ere bukatu zuen lasterketa.

Idea eta proiektu berritzaileen sariketa

Landa garapena bultzatzea du helburu Goimen elkarteak

Goimen elkarteak (Goierriko Mendi Nekazaritza Elkartea) landa garapenarekin zer ikusia duen ekimenak suspertu eta garatu nahi ditu. Horretarako antolatuta du Idea eta proiektu berritzaileen sariketa. Idea ezberdinak jaso nahi ditu Goimenek. Gai posibleak hauek izan daitezke: ohiko produkzio joeretan oinarrituta, aldaketa eredugarriak edota produktuari balio erantsi handiago bat ematea lortuko luketen ekimenak; Goierriko eskualdean ohikoak diren produkzioetatik kanpo nekazaritza arloan burutu daitezkeen ekimenak; nekazaritza jardueretatik kanpo burutu daitezkeen ekintzak (beste jarduera osagarriak, ingurugiro mailan, nekazal kultura arloan...).

Proiektuek Goierriko eskualdean garatu daitezkeenak beharko dute izan. Sariketan parte hartu nahi duenak txosten bat aurkeztu beharko du Goimen elkartearen (Santa Maria, 4 - Ordizia. Tel.a: 943161244), urriaren 15a baino lehen. Gaia aukeratzearen arrazoia, helburuak, justifikazioa, memoria labur bat proiektuaren garapena agertuz eta ahal dela, aurrekontua, azaldu beharko dira txostenean. Txostenarekin batera, partaidearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa adierazi beharko dira.

Zehaztasun maila, erabilgarritasuna, sortu daitezkeen lanpostuak, proiektuaren nobedadea, jarduera ingurugiroarekiko errespetutsua izatea, lurra eta bertako baliabideetan duen lotura, nekazaritza jarduerarekin duen lotura eta hedagarria izatea hartuko dira kontuan.

Bi sari banatuko dira: lehenengoarentzat 100.000 pezeta eta bigarrenarentzat 50.000 pezeta. Gainera, Goimenek inbertsiorako dirulaguntza eskaintzeko aukera izango da, baldin proiektua eskualdean gauzatzekoa bada.

**JOAKIN ALDANONDO GARAJEA**

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko lantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak



Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

☎ 943 18 72 57

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

BEASAINGO

EUSKALTEGIA

2000-2001 IKASTURTEKO
EUSKARA IKASTAROAK

Matrikula epea: irailaren 4tik 22ra

Bulego ordutegia: 09:00 - 13:00

15:00 - 19:00

Loinazko San Martin plaz, Kultur Etxea, 1.a

☎ 943 028 100

BEASAIN

'Gran Hermano'

Kultura deskribatzea hain da zaila, non ez nintzateken bera definitzera ausartuko. Garai batean "kultura" ibaien adarrak jakitea izaten zen, zenbat eta ibai-adar gehiago jakin orduan eta "kultura general" handiagoa.

Gaur egun ez dakit zer den "kultura" baina ezkultura zer den oso ondo dakit. "Gran Hermano", "Anaia Txikia", "Anaia Haundia", "Anaia Nagusia" edo dena delakoa da gaur, "kulturararen" antonomasia. Edozein irrati, aldizkari, egunkari... edozein kazetari nahiz idazlek, euren mota guztietako testuetan aipatzen dute "Gran Hermano" delako hori. A! hori bai, Espainia eta Euskal Herriaren ezjakintasunaren seinale bezala aipatu ere.

Aitortu beharrean nago nire jakinmina ere piztu dela aipatutako telesaio hori zer ote den jakiteko eta are gehiago euskaldun bat sartu dela ditxosozko etxe horretan jakin dudanean, euskaldun hau diotenez, oso mutil serioa eta hitz gutxikoa omen, gure gazteriaren ispilu ona.

Etxera joan, 5. kanaleko botoia sakatu eta iragarkiak nire inbidiairen baitan. Hainbeste iragarki balitu ETB1-

ek!!! Hori bai izango litzatekeela audientziaren seinale. Alferrik ari gara merkataritzan euskara bultzatu ezinean, herriari ez bazaio pito zahar bat ere axola. Merkatariek zegamatarrez ere egingo lukete bezeroek horrela eskatuko baliete.

Noan harira, "Gran Hermano" a las 10 de la noche"... Gaueko hamarretan beraz nire zita. Sukaldeko lanak egiten ditudan bitartean: Inigo... ez dakit zer? Burua jiratu eta... Horrelakoak ote gara euskaldunok? Iodiak, zabalak bai, baina, horrelakoak? Hau ote da esan didaten euskalduna? Nori galdetu? Zer lotsa! Ezkultura gehiegi ezta? Burura datorkit irakasleak ariketa orria eman eta hutsuneak bete aditz perifrastikoa erabiliz, jartzen zueneko. Ezkerreko aldera begiratu eta ezkerreko orria betetzen, eskuinekoa ere bai aurrekoa eta atzekoa berdin. Nori galdetu? zer lotsa! Nik pasatu nituen komeriak aditz perifrastikoa, nik aditz konposatua esaten niona zela konturatu nintzen arte, eta esan beharrean nago berdin gertatu zaidala "euskalduna" Koldo dela jakin dudanean arte.

Ema. NAN: 15224558

Zertarako Eustaten ikerketa?

Egun hauetan irratitik askotan entzun dugu: "haurrak sortzeko sasoiko emakume bakoitzak ez duela sortzen jende kopurua lehengo mailan irauteko adina haur Euskal Herrian, eta gainera, zaharrak gero eta urte gehiagorik bizi direnez, hamar urte barru 30.000 biztanle gutxiago izanen dira Euskal Herrian, eta aro berean zahar gehiago eta gazte gutxiago. Lanerako sasoiko jende gutxi eta jubilatu-tako zahar asko, lanean ari direnek ordaintzen dutenez zahartzarorako soldatarentzat dirua, ezin eutsiko zaio zahartzarorako soldata mailari". Hau ikertzaileen aburuz.

Ekonomia aldetik etorri daitekeen alde txarretik eman dute mezua ikertzaileek, haurrak sortzeko sasoian dauden emakumeek eta zaharroi beldurra sortzeko; gehiago lagunduko duela uste dute mezuzorrek, eduki horretatik datorren arazoa oinarritik aztertzen baino urtetik urtera barren produzio gordina hazten ari dela diote, eta hori horrela izanez gero, gizartearen zati bat urtetik urtera aberatsago ekonomikoki, gizartearen beste zati bat hazkuntza hori ezagutzera iritsi ez den

bitartean. Ez dira egun asko irratitik entzuten nuela, kanpora saldutako eta kanpotik erositako balantzea, (ez dakit ziur hiru probintziatakoa edo lautakoa den) atzeneko urtean egina: 500.000 milioi pezeta- ren balioa gehiago saldu erosi baino, hori dena gehiago ekoiztu da kontsumitu baino.

Gazte gutxiegiaren arazoa: gizartearen gazte horiek denak nortasunean behar dituela gazte horiei sentiarazteko izango balitzateke gazte gutxiago izatea baikorra izanen litzateke.

Lanean ari direnek baka- rrik ordaintzen dutela jubila- tuta daudenei ordaintzeko di- rua, horrek horrela jarraitze- kotan, "lan gutxiagorekin gehiago produzitzeko bilaka- era zuzena dela dirudi", giza- kiak gizakia ekonomikoki menperatzeko. Hemendik ha- mar urtera, gaurko maila pro- duzitzeko arazorik izanen de- nik ez dut uste, eta arazoa iza- tekotan, ezinarena ez da iza- nen, administratzaileen bo- rondate txarragatik izango da.

Patxi Otaegi
(Donibane-Lohizune)



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



ZUBIZARRETA
ETXEGINTZA S.L.

Gudarien Etorbidea, 5 -1.A ORDIZIA
☎ 670 888 244 - 943 888 244 ☎

- ✕ Monumentu historikoen berritzea
- ✕ Karean itzukuak
- ✕ Pintura mineralak karean eta silikatoan
- ✕ Zarpeatu proiektatuak eta talotxatu finak
- ✕ Kapa bakarra
- ✕ Barruko eta kanpoko lanak

Goierrri Bus
Segurtasun eta kalitatezko zerbitzua
Tel.: 943 72 52 50
Faxa: 943 72 58 70

Mota guztietako autobusak
19, 29, 55, 60 eta 82 plazatakoak
Literadunak komunarekin



farma



Angela San Juan Gonzalez
Farmazian lizentziatua

Urdaneta, 54 behea
☎/Faxa: 943 16 18 79
ORDIZIA

Larunbat
arratsaldeetan
irekita

etxe

OSAKIDETZAREKIN HITZARMENA
Lagunaro. lan mutualitateak



Parafarmazia



OINAREN KABINETEA

Anatomiko eta atsedendiko oinetakoak.
Zuzenketarako haurren oinetakoak.
Plantilak, silikonak eta osagarriak.

Udazlken
nekuko
oinetakoak



LAGUNTZA TEKNIKOAK

Gurpildun aulkiak. Oinez ibiltzekoak eta bastoiak.
Minusbalio arazoak dituzten eta ohean dauden
personentzat laguntzak. Oheak, garabiak...



BASKULARRA

Konpresio galtzerdiak eta produktuak.
Arazo baskularren prebentzioa eta
tratamendua.



KIROL ORTOPEDIA

Kirolerako ortesisa.
Kirol-bendak.

Boni-etxe

igeltseritza orokorra



☎ 616 921 502 ☎

Oriako pasealekua, 12

BEASAIN



**Josu
Irastorza**
(fisioterapeuta)

Gorputzeko hezurdura momentu oro berritzen ari da eta horretarako hezuraren desegite eta bersortzearen artean oreka eman behar da. Erlazio hau bizitzaren zehar ez da jarraia izaten, jaiotzetik hazkuntzaren bukaera arte hezuraren bersortzea nagusitzen den bitartean, ondorengo urteetatik hil arte hezuraren desegite prozesua nagusitzen baita.

Osteoporosia, hezurrean ematen den bolumen gutxitzea dugu; hau da, hezurra kualitatiboki, ektura aldetik normala izanik, kal-

tzio kopurua urriturik, kuantitatiboki gutxituta dago.

Normalean emakumezkoetan gizonezkoetan baino gehiago ematen da. Osteoporosiaren arrazoi nagusienetako bat menopausia da. Zahartzearen prozesu bezela eta beste edozein gaitzaren ondoren sortutakoa diabetes, hesteetako edo giltzurrunetako arazak ere gaitz honen bide dira; luzaroan igeltsu bat jarrita izateagatik ere sor daiteke.

Hezur haustura edo mikrohausturen ondorioz agertzen den mina da bere sintoma nagusia; nahiz eta, gehienetan oharkabea pasa. Hezur haustura ohikoenak orno, femur, eskumutur eta saihetsenak dira. Ornoen zapalketa dela eta ematen den altueraren gutxitzea da beste ezaugarri bat. Honek ondorio bezela hain tipikoa den "txepa"

edo bizkarhezurraren makurtzea dakar berarekin.

Osteoporosia ekiditzeko gaztetandik hasi beharko ginateke. Dieta orekatu bat ezinbestekoa da. Gaur egun honek arazo larria suposatzen du argala egotearen modarekin astakeria ugari egiten baititugu. Guzti horiek gerora arazo eskergak ekar ditzakete. Neurri orok bezala kaltzioan aberatsa den dieta hartzea (esnea eta esnekiak) gomendatzen da. Alkohol kontsumoa ekiditzea eta batez ere ariketa fisikoa egitea. Ibiltzeak, bizikletan aritzeak, korrika edo dantza egiteak kaltzioa hezurrean itsasten lagunduko du. Igeriketa ordea, ez da osteoporosia kasuetan gomendatzen, nahiz eta mugikortasuna mantentzen laguntzen digun. Kirol guzti hauek beti ere pertsona bakoitzaren ahalbideen arabera egokitu beharko lirarteke, noski.

Osteoporosia

Lehiaketa

Galdera

**Nor da aurtengo
Ordiziako gazta
txapelketaren
irabazlea?**

Erantzuna irailaren 18rako bidali behar da, Ordiziako 124 posta-kutxara. Bertan izena, helbidea eta telefono zenbakia zehaztuz.

**Saria Idizabal gazta bat
eta GOIERRITARRA-
ren kamiseta.**

Aurreko irabazlea

Aurreko galderaren
erantzuna: 18 urte

Irabazlea:
Bernat Berasategi
(Zegama)

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

LOINATZ

**Taberna
Jatetxea**

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1

☎ 943 88 51 68

ORMAIZTEGI



X i kel

NEVES

BANATZAILEA

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
NEURRIRA**

Urdaneta, 41 ☎ 943 16 16 06

ORDIZIA

Euskal astea Ordizian

railaren lehenengo egunarekin batera hasi zen Euskal astea Ordizia.

Iganderarte, 10erarte, luzatuko dira ekitaldi ezberdinak. Antolatzaileak hauek dira: Ordiziako Udala, Argi-Berri Elkartea, Larrun-Arri Elkartea, Jai-Alai Elkartea, Idiazabal Gaztaren Kofradia, Goierriko Bertsolari Eskola eta Ortazar Argazki Elkartea.

Irailak 5, asteartea:

17:30ean: 'Bertako produktuen Elkarteen arteko X. Gastronomia txapelketa' Bertako produktuen Elkarteen arteko X. Gastronomia Lehiaketa eta VI. Goierriko odolki onenen arteko lehiaketa eta dastaketa, Plaza Nagusian.

Irailak 6, asteazkena:

Aparteko azoka: Ikus hurrengo orria.

Irailak 7, osteguna:

19:30ean: Asier Altuna eta Telmo Esnalen 'Txotx' eta '40 ezetz' eta Helena Tabernaren 'Altsasu 1936' labur-



Irailaren 8an:

'Gabriel Aresti ad libitum' poesia eta musika ikuskizuna iznago da, Barrena Kultur Etxean, Josetxo Goia (saxoa), Pello Ramirez (txeloa) eta Josetxo Azkonaren (ahotsa) eskutik.

metraiak, Barrena Kultur Etxean.

Irailak 8, ostirala:

22:30ean: 'Gabriel Aresti ad libitum' poesia eta musika ikuskizuna, Barrena Kultur Etxean, Josetxo Goia (saxoa), Pello Ramirez (txeloa) eta Josetxo Azkonaren (ahotsa) eskutik.

Irailak 9, larunbata:

22:30ean: Bertso saio berezia Herri Antzokian: 'Goierriko Bertso Eskola - 18 urte'. Diapositiba emanaldia, bat-bateko saioa, bertso-jariak, antzerkia...

Irailak 10, igandea:

9:00etan: V. Ordizia Argazki Rallia. Irteera, Barrena

Kultur Etxetik.

9:30ean: Ordiziako txistularien kalejira.

12:00etan: VII. Lazkao Txiki bertso-paper lehiaketaren sari banaketa, Barrena Kultur Etxean.

12:00etan: Infantil mailako dantza askatuko bikotekako txapelketaren finala, Oianguren parkean.

13:30etik 14:30era: Trikitilariak, Oianguren parkean.

16:00etatik 17:00etara: haur jokoak eta toka txapelketa, Oianguren parkean.

17:30ean: Helduen dantza askatu txapelketa, Oianguren parkean.

19:00etatik 21:00etara: trikitilariak, Oianguren parkea.

Lazkao Txiki

bertso-paper lehiaketa

IX. Lazkao Txiki Bertso-paper Lehiaketako irabazleak hauek izan dira. Hiru mailatan jasotako lanak guztira 25 izan dira. **Helduetan**, irabazlea, Zarauzko Nikolas Zendoiairen 'Errosarioa' lana izan da. Bigarren saria Zaldibiako Rufino Iraolaren 'Ñañarri' lanarentzat eta hirugarrena Ordiziako Alaitz Sarasolaren 'Baserritar agentzia' lanarentzat.

Gazteetan, lehen saria hutsik uztea erabaki dute epaimahaikoa osatzen dutenek; bigarren saria Oñatiko Ander Lizarralderen 'Bekain artekoan zeharretako ubidean' lanarentzat izan da; eta hirugarrena Beasaingo Irati Goikoetxearen 'Txitxarra eta inurria' lanarentzat.

Gaztetxoan mailan, gaia itsasoa zen. Lehen saria Askaingo Maindi Muruarentzat izan da, bigarrena Ziburuko Ihintza Marguirautentzat eta hirugarrena Ordiziako Aitor Otegiarentzat.

GIPUZKOAKO
GANADUA

IDIAZABAL
GAZTA

EUSKAL JAIAK
ORDIZIA
2000ko irailaren 6a

PERRETXIKU,
FRUITU eta
BARAZKIAK

OILLOAK

ONGI ETORRIAK!
ONGI PASA EUSKAL JALETAN!



Artesania
Opariak

K. Nagusia, 28
© 943 16 02 48
ORDIZIA

Asteazkeneko aparteko azoka

Iraileko azoka berezia, berezietan bereziena izaten da. Ospetsuena bai behintzat. Txapelketa ugari izaten da egunean zehar, nahiz eta gazta lehiaketak izaten duen zabalkunderik handiena. Antolatzaileek lehiaketa ezberdinetan hainbat aldaketa egin dituzte eta ondorengo lerrootan duzue laburpena.

Gazta lehiaketa

XXVII. Ordiziako Gazta txapelketa zenbait aldaketarekin dator. Oinarriak aldatu egin dira gizartearen garapena, eta aldi berean, artzantzaren garapena kontuan hartuta. Antolatzaileek helburu bakarra dute oinarri aldaketa hauekin: Idiazabal gazta hobetzea eta artzantzatik bizi den artzaina laguntzea. Era honetan, lehiaketan parte hartuko duten artzainek uztailearen 15tik abuztuaren 15era bitartean eman behar izan dute izena. Gainerakoa, ezingo dute parte hartu. Bigarren baldintzaren arabere-



ra, artzainak Nekazari Gizarte Segurantzaren alta emana egon behar du.

Teknikari bat izendatu da lehiaketa baino egun batzuk lehenago, artzainak aukeratuak gazte zigilua jartzeko. Artzainak hala nahi izanez gero, teknikari hori arduratuko da gaztak jasotzeaz.

Aldatutako laugarren oinarriak dioenez, artzain kooperatiba edo elkarteetako kideek eta gaztak egiteko upel bera erabiltzen duten artzainek, kooperatibaren edo elkartearen izenean gazta bakar bat aurkezteko aukera izango dute.

Gazta txapelketa honen

garrantzia ikusita, antolatzaileek sari hauek jarri dituzte: lehenengoarentzat 260.000 pezeta; 2.arentzat 125.000 pezeta eta 3.arentzat 75.000 pezeta.

Epaimahaiari dagokionean ere aldaketak izango dira aurten. Mahai bakoitza sukaldari, kazetari eta teknikari banak osatuko dute. Sukaldarien artean, 7 izango dira Ordiziara etorriko direnak: Juan M. Arzak, Pedro Subijana, Hilario Arbelaitz, Martin Berasategi, Karlos Argiñano, Juan M. Idoate eta Jose Juan Castillo. Teknikariak Migel M. Etxebarren, Enric Canut, Mikel Zeberio, Jose

Luis Martin, Juan Jose Martinez eta Luis Herrera izango dira. Kazetariak azkenik, Victor de la Serna, Jose Carlos Capel, Jose Luis Iturrieta, Peio Garcia Amiano, Toni Batista, Mikel Corcuera eta Cristino Alvarez. Alfredo Landa aktorearen parte hartzea ere aurrikusita dago.

Sari-banaketa ordu bata alderako egitea aurrikusten da. Behin irabazlea nor den jakinda, lehenengo hiru gazten enkantea egingo da. Iaz, 600.000 pezeta ordaindu zituen Donostiako Super Matia supermerkatuak irabazlearen gazta erdiagatik.

Ordizia Txapeldun

10 urteetan Ordiziako gazta txapelketa irabazi dutenen arteko lehiaketa izaten da Ordizia Txapeldun. 16 urtez egin izan da txapelketa hau iraileko azoka berezi honetan. Dena den, aurten, dataz aldatu eta azaroko azoka berezian egingo da.

Barazki lehiaketa

Lehiaketa berri honetan, asteazkeneko saltzaileek bakarrik parte har dezakete.

PUB

Festa onak pasa!

sugaar

A s t o k a l e
O R D I Z I A

**ITZIARKO
NEKAZARI
KOOPERATIBA**

- Pentsugintza
- Ongarri eta haziak
- Lan tresnak
- Plastikokoak
- ARDIENTZAT pentsu gama berezia

Itziarko industrialdea, E-13

ITZIAR

☎ 943 19 93 00/30

Faxa: 943 19 92 70

Gaztaren enkantea urtez urte

Urtea	prezioa	eroslea
1980	12.000	Juan M. Arzak (Arzak jatetxea)
1981	15.000	Jose Juan Castillo (Nikolasa)
1982	28.000	Errasti (Guria jatetxea)
1983	42.000	Pedro Subijana (Akelarre)
1984	65.000	Evaristo Garcia
1985	110.000	Zacarias Puente
1986	115.000	Sebastian Azpiri
1987	135.000	Bilore
1988	190.000	Aldanondo Gaztak
1989	210.000	Bartolo jatetxea
1990	260.000	Egosari jatetxea
1991	360.000	Egosari jatetxea
1992	385.000	Patxi jatetxea
1993	390.000	Super Amara
1994	450.000	Super Amara
1995	500.000	Elutxeta sagardotegia
1996	550.000	La Barandilla supermerkatua
1997	570.000	Pryca Olaberria
1998	580.000	Pryca Olaberria
1999	600.000	Super Matia supermerkatua

Ganadu lehiaketa eta enkantea

Lehiaketa honetan ere bada aldaketarik. Aurten Gipuzkoa mailako lehiaketa izango da, baina arraza bakar batena. Pirenaika arrazako ganadua izango da lehian. Lehiaketa

bukatu ondoren, enkan-
tea egingo da.

Labeldun produktuak

Azkeneko urteetan bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko labeldun produktu guztiak Ordizian izango dira.



Egitaraua

9:00etan: Ordiziako txistularien, Tolosako dultzainarien eta Zumarragako trikitalarien goizeresia.

10:00etan: gazta, ganadu, fruitu, barazki eta lepagorri oilaskoen lehiaketak. Perretxiku erakusketa.

12:00etan: Fruitu, barazki eta perretxiku lehiaketetako sari banaketak Joxe Migel Barandiaran plazan.

12:45ean: Garagartza plazan, ganadu eta lepagorri oilaskoen lehiaketen sari banaketak. Jarraian, bertsolariak,

dultzainariak eta trikitalariak.

13:00etan: Gazta lehiaketako sari banaketa, Beti-Alai pilotalekuan.

17:30ean: Profesionalen arteko eskuz eskuzko pilota partidak, Beti-Alai pilotalekuan.

19:30ean: 'Ikusgarri' taldearen ikuskizuna Plaza Nagusian. Motozerra eskuan egurrarekin egiten duten lana erakutsiko dute.

19:30etik 21:30era: Trikitalariek giroa alaituko dute alde zaharrean.

Pub
Zorionak !!
Amonane
Ordizia

ALDASORO
Taberna - Jatetxea
Festa onak pasa!
Urdaneta, 27 ☎ 943 88 00 23 - 943 88 11 40 ORDIZIA

KOIOTE KOIOTE
Jai zoriontsuak
Zaldizurreta Kalea BEASAIN
Etxezarreta kalea ORDIZIA

KISKÁ
PUB
Santa Maria ORDIZIA

HERRIKOA TABERNA
Pintxo mundialak
Giro abertzalea
Elkano Kalea ORDIZIA

Jatetxea
HAIZEPE
● Eguneroko menua
● Asteburuetan afariak kartan
☎ 943 88 39 60
Gudarien Etorbidea ORDIZIA

Joseba Insausti Ordiz "Aralar bezain atzeratua dago"

Donostiako Intxaurreondoko Gastronomia azokan gazta txapelketa irabazi zuen Joseba Insausti ordiziarrek. 23 urte ditu. Berria da artzain ofizioan, piskanaka-piskanaka ari da ikasten. Zaldibian dauka gaztandegia. Idiazabal Gazta izendapena lortua dauka ordiziarrek. Ordiziako gazta txapelketa ospetsuan parte hartzeko asmotan da.

Ordiziako Otatza baserriko semea da. Familian ez dute artzain tradizioirik. "Animalia zale ikaragarria izan naiz betidanik. Fraisoron ikasi nuen eta artzain batzuekin praktikak egiten hasi nintzen. 8 ardi ere banituen baina ez nuen ezagutzen artzantzaren mundua. Ezagutzen hasi eta "engantxatu" egin naiz".

Udan Aralarren izaten du artaldea. Neguan, Zaldibia eta Gaintza aldean. Hiru urte daramazki Aralarra joanez. "Iaz, txabola xahar-xahar batean egon nintzen, txerriak edukitzeko ere balio ez duen txabola batean. Oso gaizki egon nintzen. Txabola berria agindu zidaten baina..."



"Niri udan mendira joatea gustatzen zait. Lurrik gainera ez daukagu eta mendira joan beharrean gaude", dio Joseba Insaustik

Artzantzan gaur egun, bi joera daudela esan daiteke Josebaren esanetan: bat modernoa eta bestea betikoa, lehengoa. "Niri biak uztartzea gustatzen zait". Josebak modernoa deitzen dion joera, honakoa da: barru-hutsean egotea, udan ere beheran mendira eramane gabe... "Niri udan mendira joatea gustatzen zait. Lurrik gainera ez daukagu eta mendira joan beharrean gaude".

Artzantza ogibide gogorra dela esan izan da beti. "Niri gogorragoa iruditzen zait gustatzen ez zaizun lan batean aritzea. Eskolatik atera naizenetik oporretan nagoe-

la iruditzen zait, nahiz eta egun guztian ardiak gainean egon. Artzainarentzat garairik okerreana negua da. Arku-meak jaiotzeko garaia, arku-meak edanarazi egin behar zaie, batzuk jaitzi, gazta egin beharra... Egunean 16 ordu baino gutxiago lan egitea zaila".

Dena den Josebak argi dauka: "ni bokazioagatik gehiago nabil. Inbertsioari

buelta emateko oso zaila dago. Askotan ez zaigu ulertzen. Elkarrekin sartu eta paper mordo bat bete behar izaten dugu, eguneroko lanaz gain. Asko exijitzen zaigu".

Artzainen eskakizunak

Artzantzaren ogibidea gehiago gogortzen duten beste faktore batzuk ere badaude Aralarren, Joseba Insaustik aitortu digunez. Txabolak konpontzea eta bidea egitea eskatzen dute Aralarreko artzainek. "Iratin, Urbian, Urban, Andian... ibili izan naiz eta Aralar bezain atzeraturik dagoenik ez dut eza-gutu nik. Gutxieneko baldintzak guztiek edo gehienek betetzen dituzte. Aralarren gauza bakoitza ikusi dut! Ordubeteko bidea oinez egin beharra eta txabola xahar-xahar batean egon beharra. Askotan urik gabe. Zenbait tokitara bideak eskatzen ditugu. Askok mandoz igo behar izaten dute ordubeteko bidean. Artzain askok gaztak egiten dituzte mendian eta haiek jaisteko eta jana gora eramateko, oso gogorra da".

Keetu gabeko gazta gehiago saltzen da baina keetu gabekoari zerbait falta zaiola iruditzen zait".

OIANGU
T A B E R N A



☎ 943 88 30 03

Euskalerria z/g ORDIZIA

Jai zoriontsuak deoi!

ESKAILU
TABERNA

Arteaga, 1
ORDIZIA

ORLEGI

JAIK ONDO PASA

ETXEZARRETA, 3
ORDIZIA

Ordiziako artzain gaztea: "Ez dut lekunik ezagutzen nik"



Joseba Insausti desiatzen egoten da Aralar igotzeko. Artzain gazte dexente omen daude bertan eta elkarren artean oso gira ona daukate. "Guztiak laguntzeko prest eta betiko auzolana nabari da"

Gaztak

Zaldibian du gaztandegia Josebak. Idiazabal Gazta izendapena eskuratzeko behar-beharrezkoa da baldintza zehatz batzuk betetzen dituen gaztandegia izatea. Duela lau zapabost urte ikasi zuen gazta egiten. "Ikasketetako praktiketan Alegiako Migel Mari Agirre artzainarekin

egon nintzen eta han asko ikasi nuen. Ikastaroak ere egin ditut. Artzain bakoitzak bere sekretua dauka eta horiek denak adituz, nolabaiteko nahasketa bat egiten dut. Pratikarekin ikasten da, eroriz erori, tarteka hanka sartuaz".

Donostiako Intxaurrendoko Gastronomia astean gazta

txapelketa irabazi zuen Joseba Insaustik. "Ez nuen joateko asmorik baina joateko eta joateko, eta joan egin nintzen, aspaldiko partez, bide batez, itsasoa ikusteko asmotan. Idiazabal Gaztaren izendapena daukaten gazten lehiaketa izaten da. Aurten atera dut Idiazabal Gaztaren etiketa. 12etarako Intxaurrendora joan beharra zegoela, joan, eta ustekabeen saria jaso eta etxera".

Keetutako gaztaren aldekoa da ordiziarra, "hemen goagoa dela iruditzen zait. Keetu gabea dena den, gehiago saltzen da. Lehiaketara keetutakoak aurkezten dira gehienbat. Niretzat oso goa, konpletoagoa da. Keetua gabea zerbait falta zaiola iruditzen zait".

Gatzagi naturala eta likidoa nahasten ditu, gazta fuertegia edo suabeegia izan ez dadin. Intxaurrendoko lehiaketara aurkeztu zuen gazta ez zitzaioa gustatzen aitortu digu ordiziarrek.

"Gustu kontua da hori. Niri gazta fuertexagoa gustatzen zait. Aurtengo aurreneko gaztak, teknikoek esanda bezala egin nituen. Fuertegiak egiten nituela esaten zidaten eta jaramon egin nien. Baina jendea iaz egindakoak gehiago gustatu zizkio eta berriz ere lehengo eran egiten hasi naiz. Kasualitatez, lehiaketa irabazi zuena, aurtengo lehengo sorta horretan egindakoa zen. Beraz, lehiaketa gehiago ez dut irabaziko", esan digu irribarrez.

Ardiak jandako belarrak ere ba omen du zerikusiarik gaztetan. "Mendiko gaztak hobeak dira. Aralarko gaztak txarrak direla esan izan da baina inguruko artzainen gaztak probatu ditut eta oso onak daude".

Ordiziako gazta txapelketan parte hartuko du. "Gazta txanda bat egin nuen Ordiziako txapelketarako pentsatuta, baina ez dira oso onak atera. Besteren bat hartu beharko dut", aitortu digu.

ARANTXA

taberna

PINTXO ETA
OGITARTEKO
BEREZIAK

☎ 943 88 72 46
Ordizia Kalea, z/g
ORDIZIA

ZELAETA

NEKAZAL TRESNAK

Carlos Oiarbide Albizu



AGRIA

SABO



DEUTZ
STIHL

SAME
Jonsered

Banatzaille ofiziala

Beasain-Durango errep. 18 area (Tejeria zaharra)
ORMAIZTEGI Tfnoa-faxa: 943 16 15 15

Nekazaritza ekologikoaren azoka Zerainen irailaren 17an

Biolurrek (Nekazaritza Ekologikoaren Aldeko Gipuzkoako elkarteak) eta Zerain Dezagun Fundazioak antolatuta, irailaren 17an, VI. Nekazaritza ekologikoaren azoka izango da Zerainen. Produktu ekologikoak erosteko aukera izateaz gain, tailerrak eta ikuskizunak ere izango dira egun osoan. Aurtan bada berrikuntza bat: salmenta goizez bakarrik, 9:00etatik 14:00etara izango da eta arratsaldean, antzinako erako erromeria izango da. Ohiko bazkari ekologikoa ere izango da.

Azoka ekologikoak nekazaritza ekologikoaren egokieraren termometroa direla esan daiteke. Bertan ikus daiteke urtetik urterako eskaintzaren bilakaera. Baina horrez gain, ez dugu ahaztu behar azoka ekologikoak harremanetarako garrantzizko gune direla: alde batetik, produktore ekologikoen, eta



bestetik kontsumitzaile eta produktore ekologiko izateko asmoa dutenen arteko topagunea, alegia. Produktua eta produktoreak ezagutu daitezke, galdetu, informazioa jaso, eta jakina, erosi, azoka hauek erosteko egiten baitira, urtean zehar askorentzat lortzeko errazak ez diren produktu ekologikoak eza-gutu, erosi eta probatzeko aukera emateko.

Azoka hauetan erosleak aurkitu ahal izango dituen elikagai guztiak produkzio sistema ekologikoen bitartez lortutakoak dira eta osagai

ekologikodunak soilik, abal-dunak edo abala lortzeko tramitazioan daudenak.

Aurtan inoiz baino azoka ekologiko gehiago izango dira, zortzi guztira, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian. Goierriarrok seigarren urtez segidan, Zerainen izango dugu produktu ekologikoak eza-gutu eta erosteko aukera.

Zerainen, produktuen salmentaz gain, tailer eta ikuskizunak izango dira egun osoan zehar. Zeraingo kronikan duzue informazio zehatza. Informazio mahaiak ere izango dira, nekazaritza eko-

logikoaren inguruko liburu eta aldizkariekin.

Etorkizun oparoa

Ekoizpen ekologikoak urtez urteko lanean irabazi du gaur egun duen izena, eta etorkizun oparoa aurrikusten zaio. Nekazaritza ekologikoaren azokak ere gero eta jakinmin handiagoa pizten dute, produkzio garbi eta osasuntsuaren alde dagoen interes orokorraren isla.

Azoka hauek Euskal Herriko nekazaritza ekologikoaren topaleku eta erakusleku garrantzitsuena dira. Bertan aurkituko dituzu Euskal Herri osotik etorritako nekazarien barazki, kontserba, fruta, ogi, esne, ardo, sagardo, gazta, mermelada, haragi, gozo eta abarrak. Azoka bakoitzak Euskal Herri osotik etorritako hogeit hamar salmenta mahai inguru biltzen ditu.

Zer da nekazaritza ekologikoa

Nekazaritza ekologikoaren oinarri eta helburua, Lurra-
ren osasunerako eta gure

Zerain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...

Tfnoa.: 943 88 89 53

ARAMA

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

gizarte-ekintza
obra social

osasunerako elikagai garbi eta onuragarriak sortzea da; eta hori, lurraren eman-kortasuna eta ekosistemaren oreka zainduz, abereen bizi baldintza duinak ziurtatuz, hondakin toxikorik sortu gabe, eta ongarri, botika edota gehigarri artifizialik erabili gabe.

Nekazaritza ekologikoak ez du lur, ur eta airerik kutsatzen, baserriarraren kanpotiko dependentzia murrizten du, elikagai 'biziak' sortzen ditu eta, produkzio eta sostengarrian oinarritzen denez, baserriaren etorkizuna ziurtatzen laguntzen du.

Europako 2092/91 Erreglamentuak zehazten du nekazaritza ekologikoa zer den eta nola egin behar den. Arau hori Europa osoan dago indarrean.

Nekazaritza ekologikoa gaur EAEn

Eusko Jaurlaritzak 1996ko irailean arautu zuen Nekazaritza Ekologikoa Euskal Autonomia Erkidegoan. Orduetik, Nekazal Industria eta Politikarako Zuzendaritza da EAEn nekazaritza era hau kontrolatu eta produktuak zertifikatzen dituen. Zertifikazioaren adierazgarria, nekazaritza ekologikoaren zigilua edo etiketa da. Etiketa hau berdintsua da Estatuko lurralde gehienetan (guztie-



tan, Andaluzian izan ezik) eta berau da produktu bat produkzio ekologikoaren arauen arabera egin delako bermea.

Gaur egun 70 baserriar edo enpresa daude EAEko operadore ekologikoen erregistroan: 30 dira Gipuzkoan, 23 Bizkaian eta 17 Araban. Iazko ekainetik gaur arte, 13 baserriar edo enpresek ematen dute izena EAEko nekazaritza ekologikoaren erregistroan. Lur azalerari dagokionez, 400 hektarea dira gaur egun ekologiko bezala zertifikatutakoak.

Oraindik orain barazkiak dira nagusi produkzio ekologikoan; iaz produktu berriak agertu ziren, ahuntz gazta, mermeladak, gozogintza eta

sendabelarrak kasu; horiez gain, abeltzaintza, arrautza, mahasti eta estensiboen alorrak hazi egin ziren.

Aurten, joera horretan, erabat berri eta estrategikoak diren hiru alor gehitu zaizkio produkzio ekologikoari: abere hiltegi bat, haragia manipulatzeke areto bat, eta Euskadin ekologikoak izena ematen lehena den zerrien hazkuntzarako esplotazio bat. Hala, barazki, fruta, kiwi, mahats eta estensiboen lur sail berriak ditugu.

Produktu hauek merkaturatzeko bi-

derik ohikoena zuzeneko salmenta da. Kontuan hartu behar da gainera, gaur egun eskaria eskaintza baino askoz altuagoa dela. Horregatik, produktorea edo ohiko salmenta puntuak ezagutu ezan, zenbaitentzat ez da erraza izaten elikagai ekologiko freskoak eskuratzea. Nekazaritza Ekologikoaren Euskadiko Federazioak zertifikatuta dauden EAEko produktore guztien zerrenda argitaratzen du urtero, interesa duenari harremanetarako bidea emanez. Ekolurra aldizkariaren bitartez ere, nekazaritza ekologikoari dagokion informazioa zabaltzen du.

Biolur

Egitaraua

Goizeko 9etatik 2etara izango da produktu ekologikoen azoka. 20 bat postu izango dira bertan. Pintxo eta zumo ekologikoak dastagai egongo dira. Zerain bertako produktuak eta Goierriko artisautza ere ikusgai eta salgai egongo dira. Sagar muztioa nola egiten den ikusteko aukera ere bai.

Azoka amaitutakoan, bazkari makrobiotikoa, osagai ekologikoekin osatua, izango da, pilotalekuan. Erreserbak aurrez egin behar dira telefono hauetan: 943801505 (Mandioa) - 943761855 (Biolur). Bazkalondoren, Joxeantonio Artzeren poesia emanaldia izango da.

Egunean zehar ogi eta gozogintza eta permakultura tailerrak eta bioeraikuntza erakusketa izango dira. Beste hainbat ikuskizun ere bai: lixiba aintzinako erara, aintzinako arropen erakusketa, alpargagintza, abarkagintza, erremintariak eta tailistak.

Erromeria

Aurtengo berrikuntza nagusia, aintzinako erako erromeria da. Arratsaldeko 5etatik abemariatakoa jo artekoa izango da. Erroskilak, sagardoa pitxarretan... bolo jokoa, txapliguak... Hau guztia Arakama anai-arreba trikitilariak eta Zeraingo ttun-ttun joleek alaitua.



ZEGAMA
OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi, Haritza, Osña.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan

Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda, Arrondo.

Segurako Erosle, **Idiazabal**go Ahizpak eta **Ormaiztegi**ko Iñaki Erosle.

JUANKAR

✳ Zoruen lixatu eta barnizadurak hautsik gabe

✳ Parket ezartzeak

☎ 943 73 19 45 - 639 96 28 50
San Inazio, 42-2. ezk. **LEGAZPI**

Ordiziako Argi-Berri elkartearen ekimnez sortua:

Goierriko bertso-eskolak 18 urte

Ordiziako Argi-Berri elkarteak sortutako Goierriko bertso-eskolak 18 urte bete ditu. Urteurren hau ospatzeko, ekitaldi berezia antolatu dute irailaren 9rako. 18 urte hauetan bertso-eskolan ibilitakoak bildu nahi dituzte, luntx batean. Jarraian, gaueko 10,30etan, ohiko euskal jaietako bertso-saioa izango da, aurtien Goierriko bertsolarien eskutik. Joxe Mari Barandiaran, Argi-Berri elkarteak kidearekin izan gara 18 urte hauei errebasoa egiteko asmotan.

- Nolatan sortu zen Goierriko bertso-eskola?
- 1977. urtean sortu zen Argi-Berri elkarte. Bertsolari zale garen neurrian, bertsolaritza bultzatzea egoki iruditu zitzaigun. Garai hartan beste



Juan Ramon Gerriko, Joxe Munduate eta Xabier Narbarte.

bertso-eskola batzuk martxan jartzen ari ziren, Almen Aretxabaletan eta Zumaia-koa, eta guk ere bertso-eskola sortzea proposatu genuen. Elkarteak onartu egin zuen. Dena den, hasierako gure asmoa, Ordizia mailako bertso-eskola sortzea zen. Besaingo Alkartasuna Lizeoan bilera batzuk egin ziren eta haiek eskualde osokoa egiteko proposamena egin zuten. Horrela hasi ginen, 1982-1983 ikasturtean.

- Bertso-eskolek zer eman diote bertsolaritzari?

- Ordura arte baserri giroko bertsolariak ziren eta etena zetorrela ikusten zen. Plazaz plaza zebiltzan bertsolariak baserri-nekazal girokoak ziren. Geroz hasi direnak, bertso-eskolatik aterakoak dira. Bertsolaritza kaletartu egin du bertso-eskolak. Lehengo bertsolariak ikasketa handirik gabekoak ziren. Eskolan, doinuak, neurriak, errimak... lanketa berezia egiten da.

- Bertsolari batek berezkoa behar duela esan ohi izan da. Bertso-eskolek bertsotan ikasi egin daitekeela erakutsi dute:

- Berez pertsona batek bertsotarako dohainak baldin badauzka, lagungarri izango zaio; bertso-eskolako laguntasunarekin gehitu egingo zaio gaitasuna. Bertso-eskolatik bertsolariak atera daitezkeela demostratu da.

- Orain dela 18 urte jendeak ikusten al zuen bertso-eskolen beharrik?

- Gaur adina ez. Ikastolen Federazioan ere ari ziren ordurako bertsolaritzako materiala prestatzen. Beharra ikusten zen.

- Gaur egun, berriz, bertso-eskolatik pasatu gabeko bertsolaririk ez dago.

- Hori da. Azkeneko Gipuzkoako txapelketa jokatu zuten gazteetan, bertso-eskolatik pasatu gabekorik ez da egongo. Lan asko egin dute bertso-eskolek. Lehenengo Eskolarteko bertso txapelketa jokatu zenean, Urnietako

JOS & BEL ILEAPAINDEGIA

Urdaneta, 15 ☎ 943 88 82 52 ORDIZIA



- Azken teknika eta nobedadeak
- Ospakizunetarako orrazkera bereziak
- Tratamendu bereziak: ile erorketa, e.a.
- Makilajeak, Manikura...
- Kosmetika osagaiak



Zutikako solariuma

4 eta 8 minutuko sesioak
(7eta 10 sesiotako bonoak)

MIAMI kafetegia

Etxezarreta kalea
ORDIZIA



ORDIZIA
BIDEO
KLUBA

☎ 943 88 79 19

Domingo Unanue, 1 ORDIZIA

Anatx bakarrik zen bertso-eskolan ikasi gabekoa, base-ri girotik zetorren.

- Bertso-eskolek beraz, beraien funtzioa ondo bete dute.

- Bai, ideia hori eduki zute-nek asmatu zuten. Eta geroz eta gehiago bete beharko dute funtzio hori. 1980ko hamarkadan hasi baziren, geroz eta gehiago ikusten da bertso-eskolen premia, belau-naldi berriak sortzeko. Ari dira bertsolari berriak sortzen. Guztiak ez dira aterako, baina bakarren bat ateratzen bada aurrera. Futboleko jokatzen duten guztiak ere ez dira gorenera iristen.

- Bertsolari gazteek saio gutxi izaten dituztela kexatzen dira.

- Goierriko bertso-eskolak ekimen bat jarri zuen mar-

txan duela bost urte, bertsolari gazteak jendaurrean ohi-tzeko helburuarekin. Goierri-ko herri ezberdinetako elkar-teetan bertso afariak antola-tzen ditugu. Goierriin badira dozena bat bertsolari gazte, bat-batean aritzeko gai dire-nak.

- Zer moduzko osasuna dauka momentu honetan Goierriko bertso-eskolak?

- Sortu berrikan, ikasle asko etortzen ziren, Ataundik adibidez, autobusa jartzen genuen. Orain 15-20ko taldea mantentzen da astelehenetako taldean. Kopurua asko jaitsi da, arrazoiak justu zeintzuk diren ez dakigu. Bat-bateko taldean dozena bat lagun ibiltzen dira.



Goierriko bertsolaritzaren belaunaldi berria.

18. urteurrena ospatzeko ekitaldiak luntxa eta bertso-jaialdi berezia

Irailaren 9an, Ordiziako euskal jaien barruan, antolatu dira Goierriko bertso-eskolen 18. urteurreneko ospakizunak. Bi ekitaldi nagusi izango dira.

Batetik, 20:00etan, Jakintza ikastolak Aranan duen egoi-tzan, 18 urte hauetan bertso-eskolan ibilitakoak elkartu nahi dituzte Argi-Berrikoek, luntxaren bueltan.

Bestetik, gaueko 10,30etan hasita, bertso-jaialdi berezia izango da, Herri Antzokian. Diapositibekin hasiko da saioa, bertso-eskolarekin lotutakoak izango dira. Komentarioak Mikel Mendizabalek egingo ditu. Ondoren, bat-bateko saioa hasiko da. Joxe Munduate, Iker Zubeldia, Joxe Ramon Elortza, Xabier Narbarte, Alaitz Sarasola eta Bixente Go-rostidi arituko dira bat-batean. Jarraian, bertso-jarrien tarte-a izango da, musikaz lagunduta. Aitor Sarriegi, Ekaitz Goi-koetxea eta Iñaki Apalategi arituko dira. Bukatzeko, antzer-kitxo bat ere izango da.

500 pezeta kobratuko da sarrera.

Ikasle-irakasle ugari

Irakasle asko izan dira bertso-eskolan. Mikel Mendizabal eta Xanti Garmendia hasierako urteetan ibili ziren. Ekaitz Goiko-etxea, Eugenio Igartzabal, Alaitz Sarasola, Iñaki Apalategi ge-roago. Goierriko herri gehienetako ikasleak ibili izan dira ber-tan. Joxe Mari Barandiaranek datuak eman dizkigu: Ordizia-koak 124, Beasaingoak 133, Ataungoak 85, Lazkaoak 28, Idiazabaldik 27, Zaldibitik 26, Itsasondotik 24, Seguratik 23, Zegamatik 16, Ormaiztegitik 13 eta Gaintzatik 2.

Goierriko eskola izaki Goierriko udalek dirulaguntza ema-ten die bertso-eskolari. "1987. urtean hitzartu genuen dirula-guntza bera ematen digute oraindik ere. Aurtengo udazkenean saiakera egitekotan gara. 300.000 mila pezeta jasotzen dugu udal ezberdinetatik.



GUK-LAN

Berogintza - Iturgintza - Gasa

Tel.: 943 16 12 77 Faxa: 943 16 09 33
Okorro 6 - behea ORDIZIA



Jai Zoriontsuak!

J. M. Barandiaran, 3

943 88 76 15 ORDIZIA

Arkupe

tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredolak
Mantak - Malndireak - Storeak
Toallak - Gortinak eta osagaiak

J. M. Barandiaran Plaza

943 88 00 84 ORDIZIA



BIÑASPRE

Oporretara joan aurretik eskuratu
Biñaspren zure brontzeatu eta
edertasun programa

Zure eguzkitarako produktuak
erosteagatik, opariak ditugu!

K. Nagusia, 8

943 88 13 37

ORDIZIA

USAINDEGIA
OPARIAK
ESTETIKA ZENTRUA



Oporren ondoren festak berriro ere

Santa Ana jaiekin utzi zintuztegun uztaila amaieran eta abuztuko oporraldia iragan da euskal festekin gatzokizue iraila hasiera honetan. Ekitaldiz beterikoa izango da aurtengo euskal aste hau (ikus erdialdeko gehigarri berezia), jubilatuen txanda izango da aurrena, peri berezia ere hor izango da eta ohi bezala sukaldari, bertsolari, kirolari eta bestelakoek ere izango dute euren tokia. Dena den, irailaren 6a izango da egunik ikusgarriena.

Ohiho asteazkeneko periko postuez gain herriko hainbat kaletan ere ipiniko dira baserriko produktuez osaturiko beste hainbat postu. Ganadua ere protagonista izango da eta baita gazta ere. Ohi bezala, eguerdi partean hain sona handikoa bihurtu den gaztaren enkantea egingo da herriko pilotalekuan. Gazta erdia etxeratu nahi duenak poltsikuei astindu ederra eman beharrean izango da ziurrenik oraingoan ere. Taloak, ardoa, eztia, gazta eta abar dastatzeko aukera paregabea bertaraten diren guztientzat.

Irailaren 9a, larunbata, bertsolaritzari zuzendutako eguna izango da. Goierriko Bertso Eskolak 18 urte bete dituela eta bertso saio bere-

zia izango da iluntzean Herri Antzokian. Aurretik urte guzti horietan bertso eskolatik pasatako ikasle guztiak bildu asmoz luntxa ere egingo da.

Bertsolari sarituak

IX. Lazkao Txiki Bertsopaper Lehiaketako irabazleak zeintzuk izan diren badakigu dagoeneko. Hiru mailatan jasotako lanak guztira 25 izan dira eta epaimahaikoen esanetan honakoak izan dira aurtengo lehiaketan idatzitako bertsorik onenak: helduetan, idatzi beharreko gaia libreza izanik, lehen saria Zarauzko Nikolas Zendoiaeren 'Errosarioa' lanarentzat izan da. Aipatu iaizko saioan ere zarauztar honek eraman zuela lehen saria. Bigarren saria Zaldibiako Rufino Iraolaren 'Ñañarri' lanarentzat eta hirugarrena Ordiziako Alaitz Sarasolaren 'Baserritar agentzia' lanarentzat.

Gazteetan, hemen ere gaia libreza izanik, lehen saria hutsik uztea erabaki dute epaimahaikoa osatzen dutenek, bigarren saria Oñatiko Ander Lizarralderen 'Bekain artekoan zeharretako ubidean' lanarentzat izan da eta hirugarrena Beasaingo Irati Goikoetxearen 'Txitxarra eta iñurria' lanarentzat. Azke-



3x3 saskibaloia lehiaketa

Uztailaren 16an modu arrakastatsuan jokatu zen lehen 3x3 saskibaloia lehiaketa. Eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere 44 taldek parte hartu zuten eta partidua ikustera, batez ere finalak, jende ugari bildu zen. Gizonezko nagusien mailan 'Cuando Fuimos los Mejores' taldea izan zen garaile eta emakumezko nagusietan 'Constantinas'.

nik, gaztetxoan mailan, gaia itsasoa izanik, lehen saria Askaingo Maindi Muruarentzat izan da, bigarren saria Ziburuko Ihintza Marguirautentzat eta hirugarrena Ordiziako Aitor Otegiarentzat.

Sari banaketa irailaren 10ean izango da eguerdiko 12etan Barrena Kultur Etxean. Sariak banatzeko hor izango dira Alejandra Iturrioz alkate anderea, Argi Berri Elkarteko ordezkari bat eta Lazkao Txiki zenaren senditarteko bat. Ekitaldia- ren amaieran sarituek euren bertsoak kantatuko dituzte.

Hauztura udaletxean

Azken boladan izandako atentatuak medio beste hainbat udaletxetan bezala Ordizian ere gobernu batzordeak EHrekin apurtzea erabaki

zuen abuztuan. Osaketa berria irailean bertan erabakiko da eta izango duzue aurretentzearon honen berri zehatzagoa.

Futbol taldeak

Futbol denboraldia hasteko aste batzuk falta diren arren aurrendenboraldian sartuta daude herriko maila desberdinetako futbol taldeak. Aurtengo 5 talde izango ditu Ordizia K.E.ak. Helduak, igoera lortu ondoren, errejonaleko lehen mailan arituko dira. Jubeniletan aurtengo talde bakarra izango da eta gauza bera gertatzen da kadete mailan. Infantiletan ere talde bat izango da eta azkenik emakumeen taldea ere osatu da aurtengo denboraldirako. Zorte ona denei.

Aitor Calvilo

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Mota guztietako baimenak:
B, B+E, C, C+E, D, D+E, A1 eta A

Aita Urdaneta ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

Cuesta

Kortinak, alfonbrak, etxeko arropak
Oihalak
Plaza Nagusia, 4 ORDIZIA



- Apalak, manparak
- Mantenimendu eta biltegiratzea
- Altxarigintza industrialak
- Bulego altzariak

☎ 943 88 77 90 Mallotz, 25. pab.
Faxa: 943 88 82 67 ORDIZIA

San Joan txiki



Abuztuaren 29an, giro ederrean ospatu zen San Joan Txiki eguna. Idiazabalgo txistularien doinuek esnatu zuten eguna. Hetan meza nagusia izan zen. Jarraian, izan zen ekitaldirik aipagarriena. Garai bateko sokadantza berreskuratu nahi izan dute olaberritarrek. Gazteek egiten omen zuten dantza hau. Dantza hau berreskuratzeko bide-

an denez, lehenengo ahalegina, garai batean gazte izandakoek egin zuten, argazkian ikusten den bezala.

Eguerdian igeriketa txapelketa, bertsolariak eta herri kirola izan ziren. Arratsaldean, haur jolasak, herri mailako bola eta toka txapelketak, artzain txakur lehiaketa izan ziren. Gauean herri afaria eta Drindots izan ziren.



Bonsai erakusketa arrakastatsua

Aralar Bonsai Klub elkarteak antolatutako bonsai erakusketan, Jose Luis Crespok irabazi zuen I. bonsai txapelketa. Odei Garro olaberritar gazteak irabazi zuen ikusleen saria. Ikusle asko pasatu ziren Iurre auzoan kokatutako erakusketatik eta antolatzaileak gustura gelditu dira. 20 bat bonsai ikus zitezkeen, gehiagorentzako lekuri ez baitzegoen aretoan. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroatik etorri ziren ikusleak. Baita Burgos, Madril, Valladolid eta Riojatik ere. Argazkian azalzen den Txileko bikote bat ere etorri zen.

Aralar Bonsai Klub elkartekoek Jose Luis Crespo, Zarauzko Eusebio, Jose Luis Catalan, Donostiako Eusebio, Inaki eta Jony Lasa eskertu nahi ditu lerro hauetatik. Baita antolaketan lanean aritu diren Mikel Flores eta Igor Etxabe elkartekideei ere. Honelako erakusketa bat antolatzeak sortzen dituen gastuei aurre egiten lagundu dien enpresei ere eskerrak eman nahi dizkiete. Bonsai elkartekoek azkenik, zera argitu nahi izan dute, sortutako esamesak garbitzeko: Udalaren edo erakundearen dirulaguntzarik ez dutela jaso.

IBAI ONDO



AROTZEGIA

instalazio berriak

Altzariak neurritan
Mota guztietako arotzegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN



LADA
Ssang Yong

N-1, z/g

☎ 943 88 09 47

ARANDIA
Garajea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA



N-1 errepidea, Iurre auzoa


☎ 943 88 43 01 OLABERRIA

ARRIETA

JATE TXEA

☎ 943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.



Aratz eta Ibon Antiguon txapeldun

Pasa den hilaren 27an Antiguoko pilotalekuan jokatu zen finalean garaile atera ziren Aratz Mendizabal eta Ibon Gurrutxaga pilotari zaldibitarak, Erroizenea eta Argoteri 22-13 irabazi ondoren. Lan dexente egin behar izan zuten Hernaniko eta Zarauzko pilotariei irabazteko eta pilotekin gora-beheraren bat izan zuten arren, partidua

aurrera atera zuten. Aratzek joko ona erakutsi zuen eta erruz jo zuen pilota Antiguoko frontoi motzean. Atzean, Ibonek ondo eutsi zion partiduari. Azkenean txapelak herrira ekarri zituzten eta Aratz finaleko jokalaririk onenaren saria ere eman zioten.

Ez da ahaztu behar bi pilotari gazte hauek Añorgako txapelketa irabazi zutela uz-



Konponketa lanak Elizan

Konturatuko zineten bezala Santa Fe parrokiaren berrikuntza lanak egiten hasi dira uda honetan. Obra hauek egiteko 6 hilabeteko epea dute, eta bertan eliza bera eta sakristia konpontzeaz gain, zoru guztia altxatu eta teilatua berritzeko asmoa dute.

Santa Fetako bilera

Astearte honetarako, hilak 5, arratsaldeko 7etan festak antolatze bilerak zabala deitu du Kultura batzordeak. Festetarako hilabete eskas falta da eta zenbait ekitaldi zehaztuta dauden arren, jendearen parte hartzea ezinbestekoa da, ahalik eta jairik herrikoienak antolatze bilerak.

tailean eta egun, Altsasuko txapelketaren barnean finalerdietan daude. Finalerako txartela lortzeko partidua hilaren 9an jokatu dute iluntzeko 10,30etan Mazkieran eta Pradoren aurka.

*Iñaki Gurrutxaga
Saro Jauregi*

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
☎ 943 88 40 57 ☎ 943 88 80 29
ZALDIBIA BEASAIN



**GENERALI
Aseguroak**

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA


Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

**"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"**



K. Nagusia 35 Eloegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

Igartza auzoa jaietan



Irailak 8, ostirala:

19:00etan: Loinazko ermitan meza eta erromeria.

19:30ean: Buruhandi eta txistularien irteera. Ondoren, txupinazoa. Jarraian, triki-poteoa.

22:30ean: Antzerkia.

23:30ean: Izotz taldearekin dantzaldia.

Irailak 9, larunbata:

10:30ean: Igeriketa frogak.

11:30ean: Marrazki lehiaketa.

16:00etan: Arku tiraketako froga nazionala.

16:00etan: Mus txapelketa Loinazpe ikastetxean.

17:00etan: Toka eta igel txapelketa.

pelketa.

17:30ean: Haur jokoak.

19:30ean: Triki poteo mozturrotua.

23:30etan: Drindots taldearekin dantzaldia.

Irailak 10, igandea:

12:30ean: Buruhandien eta txarangaren irteera.

13:00etan: Auzotarren poteoa.

17:00etan: Bertso-saioa.

18:00etan: Dantza-saioa Arkupe taldearekin.

19:00etan: Herri-kirolak.

20:00etan: Txarangarekin auzotarren poteoa.

22:00etan: Pobre de mia.

IKASTAROAK

Marrazki eta pintura ikastaroa

Urriaren 2an hasiko da, Urbieta Arte Plastikoetako Zentroan, Bear pintura zaletuen elkarteak antolatuta. Dena den, aurtan hasten direnak, azaroaren 2an hasiko dira. Jokin Telleria izango da irakaslea. Helduek astean 4 orduko ikastaroa izango dute; gazteek 3 ordukoa eta haurrek 2koa. Irailaren 20an bilera egingo da 19:00etan, Urbieta Arte Plastiko-en zentroan.

Zeramika eta esmalte ikastaroa

Urriaren 3an eta 5ean hasiko da, Buztina zeramika-zaletuen elkarteak antolatuta. Mariano Palenzuela izango da irakaslea. Bi talde egongo dira: asteartetan 15:00etatik 17:00etara eta ostegunetan 19:00etatik 21:00etara. Izena ematen duen jende kopuruaren arabera 3. taldea osatuko litzateke, asteartean edo ostegunetan, 17:00etatik 19:00etara.

Argazki ikastaroa

Argizpi argazkizale elkarteak antolatuta izango da argazkigintza ikastaroa. Bi mailatan banatuko da ikastaroa. 2. mailakoak, irailaren 12an hasiko dira eta 30 orduko iraupena izango du. 1. mailako ikastaroa urriaren 17an hasiko da eta 50 orduko ikastaroa izango da. Astearte eta asteazkenetan izango dira bi ikastaroak, 19:00etatik 21:00etara eta larunbat goizetan irteerak egongo dira.

Antzerki ikastaroa

Urriaren 7an hasiko da, Errail taldeak antolatuta. Rosa Rojo izango da irakaslea eta larunbatetan izango da 10:00etatik 14:00etara. Ikasle kopurua mugatua da.

Ballet ikastaroa

Urritik ekainera bitartean Etxe Ubi gimnasioan ballet ikastaroa izango da. 5 urtetik gorako hurrei dago zuzendua ikastaroa eta Gala izango da irakaslea. Izena ematen duten haurren kopuru eta mailaren arabera sailkatuko dira taldeak.

Ikastaro hauetan guztietan parte hartzeko izena ematea Udaleko Kultura Sailean egin behar da.

KALITATEKO EUSKAL OKELA

Harategia - Urdaitegia

Festa onak para!

Saltsamendi

☎ 943 888 646

Igartza Oleta, 12 BEASAIN

ZUHAIZPE TABERNA

Jai zoriotsuak igaro ditzazuela!

Igartza Oleta, 14

BEASAIN

JULIAN MUJICA

Harategi - Urdaitegia

Bertako txekorra, etxeko txorixo eta odolkiak

Festa onak para!

Igartza Oleta, 10

☎ 943 88 01 96

BEASAIN

AKELARRE taberna

Festa onak para!

Igartza Oleta, 12 ☎ 943 88 23 12

BEASAIN

ANZIZAR Taberna

Festa onak para!

Igartza Oleta, 8 ☎ 943 88 43 17

BEASAIN



Nekazal turismo, aterpetxe, parketxe...

Non lo egin?

Aldarreta eta Andralizeta nekazal turismoko etxeak, Gabrielenea aterpetxea eta Lizarrusti parketxea dira kanpotik datorrenak gure herrian aurki ditzakeen aukera desberdinak. Baina ez kanpotarrentzat bakarrik, etxera datozkigun lagun eta senitarte-koentzat ere irtenbide eroso gerta daitezke, gure etxean lekuri izan ezean. Hala azaldu digu Maitere Aldarretako etxeoandreak.

Aldarreta

San Martingo mediku-etxe zaharretik gorantz bi kilometro ingururen barruan aurkitzen da Aldarreta baserria. Paraje ikusgarrian kokatua, 6.urtea dute aurtengo hau nekazal etxe bezela ireki zutenetik. Ohe bikoitzeko lau logela eta bi bainugela ditu. Horrezgain, bakoitzak bere aukeran erabil dezakeen sukalde bat ere bada. Urte guztian zehar irekita egoten bada ere, Aste Santu eta udarako oporreta izaten omen da mugimendu gehien. Halere, Maiterek adierazi digunez, gero eta jende gehiago omen da Eguberritako oporrak bertan pasatu nahi dituenak. Bere etxera etortzen diren gehienak kataluniarrak omen dira, baina holandar zein ingelesak ere izan omen dituzte. Bost urte jarraian etorri den

bikote katalandar baten aipua ere egin digu, baina dudarik gabe egonldirik bitxienetako emakume bilbotar bate-na izan zen. Bere zazpi seme-alabekin egoteko aukerarik ez zuela eta Aldarreta aukeratu bait zuen familia elkartu eta berarekin egun batzuk pasatzeko.

Andralizeta

Ergoienako kaxko polit batean dagoen Andralizetan Arantxak egin digu harrera. Ba omen dira 3 urte nekazal turismo etxea ireki zutenetik. Urte guztian zehar irekita badago ere, oporretan izaten dutela jende gehien esan digu Arantxak. Kasu honetan ere katalandarrak etortzen omen dira gehien baina Espainiako beste alde batzuetako bezeroak ere etortzen omen zaizkie.

Lau logela dauzkate bainugela eta guzti eta horrez gain "pensión completa"-n egoteko aukera eskeintzen zaio bertara doanari. Baina jende gehiena eguna kanpoan pasatu eta afaltzera etor-



tzen dela adierazi digu Arantxak.

Gabrielenea aterpetxea eta Lizarrusti parketxea

Aurrekoekin gonbaratuz aukera desberdina eskeintzen digute Gabrielenea eta Lizarrustik. Talde haundientzako ezinobeki horniturik daude biak ere. Hogeina pertsonentzako literadun bi gela handiz gain, sukaldea, egongela/jangela eta 5 ikasgela erabiltzeko aukera daukagu, besteak beste Gabrielenean.

Lizarrustin 36 literako logelaz gain, bi logela bikoitz, egongela, eta otorduatarako, 40 lagunentzako jangela daukagu aukeran. Horrez gain, parketxeko harrera gelan Aralar Parke Naturalerako diaporama dugu ikusgai. Gainera, parketxeak eskalada, ibilaldi, erreka jaitsiera eta antzeko ekintzak antolatzen ditu.

Aukera faltarik ez dugu beraz herrian. Opor garaia joan berri bazaigu ere, orain gure esku gelditzen da datorrenerako gure herria sustatzeara edo promozionatzeara. Azkenik, hain harrera ona eskeini didaten Maitere eta Arantxari eskerrak eman nahi nizkieke.

Agurtzane Bikuña

San Gregorioko jaiak

Abuztuaren 31n hasi eta irailaren 3an bukatu ziren San Gregorio auzoko jaiak. San Gregorioko festa komisiok, Artadi kultu elkarteak eta Pelotazale elkarteak Udalaren babesean antolatut zituzten jaiak.

✓ Aholkularitza juridikoa
✓ Entrepresa zerbitzuak
✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel./Faxa: 943 16 21 92
Kale Nagusia, 2 BEASAIN



VIA ENERGIA

Alpe MASTER

Elektragaraiak
Sukaldeko altzariak

Mariaratz, 4 ☎ 88 86 84 BEASAIN



Herriko ordezkariak Argentinara

Irailaren 8an, ostirala, abiatuko da herriko ordezkariak Argentinara. Antton Irizar alkatea buru dela, 9 lagunek osatutako taldeak hamar eguneko egonaldia egingo du bertan. Lehendabiziko egunak Argentinako Idiazabal herrian egingo dituzte. Irailaren 9an hasiko dituzte herriaren 90. urteurrena ospatzeko ekitaldiak eta horietan parte hartuko du hemengo ordezkariak. Egun horretan, harrerara modura 700 lagunentzako afaria eta festa dituzte antolatuta Argentinako idiazabaldarrek. Hurrengo egunetan "Gauchoen" kultura ezagutzeko aukera izango dute. Villamaria herrira ere joango dira, bertako Euskal

Etxeak omenaldia egingo die hemengo idiazabaldarrei. Irailaren 12an agurtuko dute argentinako idiazabaldarrek gure herritik joandako taldea, aurretik ordeza bi Idiazabalen arteko adiskidetzetara sinatuko dute Miguel Angel Martinato eta Antton Irizar alkateek. Ondorengo egunak Buenos Aires hiriburuan eta Iguazu inguruan egingo dituzte.

Opariak

Argentinako idiazabaldarrei eramateko opariak prestatzen ari dira egunotan bertara joatekoak diren herritarrek. Larruzko azala jarri dioten euskaldunei buruzko liburu bat, malatxa, eta artzainaren



Arantzazura

Oporretatik bueltan, irailaren 3rako antolatu dute aurten ere Arantzazurako erromesaldia. Autobusez bertarainoko bidea egin eta meza entzun ondoren bildutako herritar guztiek bazkaria egingo dute.

blusa eta zapia eramango dizkiete besteak beste. Horiekin batera Argentinako eta Euskal Herriko ikurrak bordatuta dituen txapela, eta Demetrio Jauregialzo Argentinako Idiazabal sortu zuenaren jaiotze agiriaren kopia ere prestatu dute.

Horrela bukatuko da bi Idiazabalen adiskidetzarako lehendabiziko urratsa. Ar-

gentinako ordezkariak ekainaren bukaeran izan ziren hemen. Zortzi urteko hartue-manaren ondoren, orduan ezagutu zuten beraien herriari izena ematen dion herria. Hemengo ordezkariak orain ezagutuko dute, gurearen izena hartu duen herria.

Xabier Urteaga



Ekintzak kurtso berrirako

Uda amaitzean dagoen honetan Iko O.E.-k hainbat ekintza antolatu ditu kurtso berriari hasiera emateko.

Datorren asteburuan, irailak 9 eta 10, lehenengo 3 x 3 saskibaloi txapelketa jokatu-ko da. Bertan, adin guztietako

ko jendeak parte hartu ahal izango du.

Irailaren 15etik 17ra, mendi irteera egingo da. Nori izango den oraindik ere zehazteke dago.

Aurrerago, urrialdean, aurreko urteetako kirol ekin-

tzentzat ere lekua izango da. Aerobic, mantenimendu gimnasia eta 3. adinekoentzat mantenimendu gimnasia dira antolatu diren kurtsoak.

Azkenik, gogoratu, herriko futbol txapelketa ere gaineganean dugula. Aurten gainera, kiroldegi berriaz gozatzeko parada izango da.

Animatzen zarenok edo soilik informazio gehiago jasotzeko nahi duzenok deitu ondorengo telefono zenbakira: 943806557.

Entrenatzailea behar da

Aurreko urtean Yara Urtatza eta Asier Martinek ondo baino hobeto bete zuten postua inork bete nahiko balu orain du aukera, izan ere federaturik dagoen jubenil mailako nesken futbol taldeak entrenatzailea behar du. Animatzen zarenok deitu 943806010 telefono zenbakira.

*Inko Mujika
Laida Oiarbide*

Giro ederra San Bartolome jaietan



Apeadoroko igoera irabazleak.

Abuztuaren 23tik 27 bitartean ospatu dira Udalak antolatutako aurtengo San Bartolome jaiak, jendetza ugari izan delarik herrian. Orokorrean ekintza guztietan partehartze handia izan bada ere zenbait ekintzak arrakasta handia izan dute. Aipagarriak sardina jatean eta paella lehiaketan herriko plazara inguratutako jendetza eta giro ona. Guztia hau antolatu ahal izateko, Udalak laguntza handia jaso

du herriko elkarte eta herritarrengandik era batera edo bestera bere laguntza eskainiz.

San Bartolome jaiak direla eta zenbait lehiaketa bultzatu ziren aurrez nahiz jaietan bertan eta hona hemen garaileak:

● **Programaren azalerako argazki lehiaketa:** Marilu Azurmendi.

● **Balkoi eta leiho apainketa lehiaketa:** Begoña Etxeaza-

Xabier Azurmendi irabazle

Xabier Azurmendi zegamarrak eta Janire Urbietak bergararrak San Bartolome Egunean Ibarran parte hartutako Fandango eta arin Arin lehiaketan 2. Saria irabazi zuten.



Bikote honek jadanik hainbat garaipen lortuak ditu, besteak beste, Euskadiko Txapelketa, gazteen mailan, 3 aldiz irabazi dute eta helduen mailan, azken bi urteotan lehen hamarretan sailkatu dira.

Olaran auzoan berehala eraikiko diren etxebizitzak

Olaran auzoan etxebizitzak erakitzeko lehiaketan parte hartzeko epea, datorren irailaren 6an bukatu da. Bestalde, Olaran auzoan eraikiko diren etxebizitza erosteko asmoa duenak, bere eskaera irailaren 30 bitartean egin behar du Udaletxean.

Babes ofizialeko etxebizitzaren erregimen juridikoari buruz bilera

Irailaren 14an, iluntzeko 7etan, hitzaldia izango da Udaletxean, bertan Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak, Gipuzkoan duen Ordezkaritzako Delegatua den Martin Agirre izango dugu gure artean, gai honi buruzko argibideak eman asmoz. Hitzaldi honetara etxebizitza hauek erosteko interesa dutenak daude gonbidaturik.

Kultur etxearen erabiltzaileentzat oharra

Ikasturte berriaren aurrean, ohi denez, Kultur etxeko giltzen erabiltzaileen zerrenda gaurkotzeko asmoz, eta zenbait zerraila aldatu beharrean daudela eta, zenbait zerraila aldatu egingo dira, hori dela eta, bertako giltzen erabilpenaren beharra duten guztiek izena Udaletxean eman behar dute, bertan zein gelaren erabilpena behar duen adieraziz, edota 943 801351 deitu (Eduarne). Epea: Irailak 20.

Helduen irakaskuntza

Zegaman urtero antolatzen den EPA edota Helduen Hezkuntzarako Gela dela eta, aurtengo bi eskaintza egingo dira. Alde batetik, Eskola Graduatua atera nahi dutenentzat eta bestalde, Eskola Graduatua dutenentzat, eta hurrengo ikasketak egin nahi dituztenentzat. Gai honi buruz, informazio gehiago nahi duenak 943 80 13 51 telefonora deitu (Eduarne).

rreta.

● **Paella lehiaketa:** Tartalo Elkartek lehenengo bi sariak jaso zituen.

● **Mozorroetan:** Giro gehien sortu zuen taldea: txantxanteak. Jantzi landuena: Txaranga. Bakarkako saria: Maria Jesus Garcia.

Txirrindu frogetan izandako garaileak

● **LXVII. San Bartolome froga:** 1. saria: Gorka Gonzalez. Mendiko saria: Gorka Gonzalez. Taldekako saria: Banesto Taldea. Aipagarria da orainarte behintzat, Zegamako San Bartolome Froga irabazten duena, profesional mailara igo dela.

● **XXX. Apeaderora igoera:** Ruben Zabaleta. 7 urtetik beherako frogak: Luis Malkorra. 7, 8, eta 9 urtekoak: Jon Irastorza. 10 eta 11 urte-

koak: Unai Agirre. 12 eta 13 urtekoak: Aitor Zabaleta

Bolo eta toka txapelketak

● **Herritarren arteko bolo txapelketa:** Helduetan: Jose Agirrebengoa. Haurretan: Oier Irastorza

● **Probintzia mailako bolo txapelketa:** Marcelino Agirre, Segurarra

● **Tokan:** 1. go herritarra: Sebastian Alzelai

Larunbatean ere festa

Herriko tabernari eta txoznek antolatutako eguna izango da irailaren 2koa. 17:00etan arku tiraketa lehiaketa egingo da. 18:00etatik 21:00etara, Koxkola txarangaren kalejira izango da. Tartean, 19:00etan hasita, buruhandi eta erraldioak ere ibiliko dira.

Eduarne Albizu



Lierniko festak irailaren 8tik 10era

Irailak 8, ostirala:

11:30ean: Meza nagusia. **Egun osoan** zehar Andonegi eta Ostolaza trikitilariek alai-tuko dituzte bazterrak.

Irailak 9, larunbata:

16:00etatik aurrera umeentzako puzgarriak eta jolasak izango dira. **Iluntzean:** Auzo afaria Andonegi eta Ostolaza



Arantzazuko erromesaldia

Aspaldiko ohiturari jarraituz, Arantzazura erromesaldia izango da, irailaren 2an eta 3an Segura eta Zerainekin batera. Irailaren 2an mendiz mendi egiten da ibilaldia, Otzaurtetik abiatu eta Urbiatik edo Aitzgorritik zehar, Urbiara heltzen da bertan bazkaltzeko. Bazkaldu ondoren Arantzazurako bidea hartzen da. Bigarren aukera irailaren 3an Arantzazura hurbiltzea da.

Jaiotzak

Oraingo honetan Mutilotik bi jaiotzen berri eman behar dugu. Lehenengo orain dela bi hilabete, Asier Irureta Telleria Odio baserriko Mari Carmen eta Juan Joxeren semea ekainaren 21ean jaio zen. Abuztuaren 17an, berriz, Iñigo Altuna Etxeberria, Andramaiztegi baserriko Juan Inazio eta Gurtzeren semea jaio zen. Guztioi zorionak.

trikitilariek afari ondorena girotuko dute.

osoan zehar iraungo du. **12:30ean** Meza Nagusia.

Irailak 10, igandea:

9:00etan Goiz Eresia Segurako Txistularien eskutik.

9:00etan hasita XIX. Lierniko Txirindulari proba. Maila: gazteentzat. Antolatzaile: Lierniko Txirindulari Elkartea. **10:00etan:** XIX. Pitxoi tiraketa 'Kolonbaire tresnaz'. Antolatzaile: Aitz-Buru Elkartea. Tiraketak egun

Eguerdia eta arratsaldean Ainhua Munduate eta Olatz Nograro trikitilariak. **18:00etan** Azurmendi eta Elorriaga aizkolariak tronko mozketan eta lasterketan.

Oharra: Afarirako izen ematea Patxi erretegiaren Telefonoa: 943.801575. Tonbola ere izango da.

Iñaki Ugalde

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA

Tfnoa. eta Faxes: 943 88 90 17

ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK



Iñauti
HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 ZNAI KOLEGIATUA

Jai

zoriontsuak!

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK

ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28



MUJIKA



BEASAIN ☎ 943 88 74 00



Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 **Senpere, 7 BEASAIN**



Ekain eta Emilio Sidneyra


Begirada Sidneyko paraolinpiadetan kokatua zuten bi lazkaotar hauek lortu dute beraien helburua. Urriaren 18tik 29ra bitartean Australiar jokatu diren XI. Joko Paraolimpikoetan Lazkaok bere txokoa lortu du Ekain Arruabarrena eta Emilio Sanchezek esker.

Ekainek eta Emiliok behin eta berriro egiaztatu dute beraien ezintasunak ez direla inolako oztopo izan kirola egiterako orduan. Txirrindularitza mailan bi izen garrantzitsu ditugu gure artean. Eta orain beraien ametsa egi bihurtzeri doa hainbeste

esfortzuren ondoren. Estatu mailan lortutako garaipenek Sidneyra joateko aukera paragabea eman baitiete. Jadanik lazkaotar guztien esperantzak beraierengan daude kokaturik. Zorionak eta animo Emilio eta Ekain!

'Euskal Herria eta dinosaurioak' erakusketa

Irailaren 30 bitartean Kultur Etxean ikusgai izango da 'Euskal Herria eta dinosaurioak' izeneko erakusketa. Jose Angel Torres eta Luis Ignacio Vieraren erakusketak astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara eta la-



runbatetan 11:00etatik 13:00etara izango da zabalik.

Erakusketa zientifiko eta didaktiko honekin modu atseginean eta erraz ikusteko moduan erakutsi nahi dira gure lurralaren gertuko bezain ezezagunak diren hainbat alderdi, dinosaurioek planeta osoa mendean hartu eta nagusi zireneko garai bateko xehetasunak emanez aldi berean

11 eremu-gai duazka erakusketak, bitrina desberdinak osatzen dituztenak, bakoitza bere euskarri didakti-



ko propioarekin, argazkiz osatutako material aberats, eta euskarazko nahiz gaztelaniazko testuak, argibide moduan emanak.

Eremu-gai desberdinetako bakoitzak bere argiztapen sistema dauka, eta horrek erakusketari erakargarritasun eta funtzionaltasun handia ematen dio bisitariarentzat. Aipatutako erakusketa osagaien osagarri bezala, bideo-euskarri bat ere bada, 15 minutuko iraupena duena, bi hizkuntzetan.

Elordi Garcia

SAN BENITO IKASTOLA
LAZKAOKO
Haurtzaindegia-ludoteka
Zabalik urte osoan zehar:

- * **Haurtzaindegia:** 7:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 7:30etik 14:30era.
- * **Jantokia:** 7:00etatik 9:00etara eta 12:00etatik 14:30era (haur eskolarizatuak)
- * **Haurtzaindegia-Ludoteka:** 16:30etik 20:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.
- * **Kangurak:** Ostiral eta larunbatetan 20:00etatik aurrera.

☎ 943 88 08 00 - 626 91 80 76 ☎

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B. KARROZATEGIA

Hiribarren, 24

☎ 943 88 95 83

LAZKAO

OSTEOPATIA MEDIKU ZENTRUA

Rikardo San Vicente Dr. Koleg. Zkia. 4371

Pariseko Bobigny Unibertsitateko Medikuntza Fakultatean Osteopatian diplomatua

- ✖ **Lunbalgia, dorsalgia, zerbikalgia, sorbalda mindu eta gainontzeko lokomotozio-aparatuaren arazo mekaniko-funtzionalen eskuzko medikuntza tratamendua.**
- ✖ **Tendinitis, gihar, tendinoso eta gihar-eskeleto arazoen elektromedikuntza bidezko tratamendua.**


Ordutegia: 16:30etik 20:00etara. Aldez aurretik txanda eskatu

☎ 943 880 728

Garmendia Otaola 7 behea.

BEASAIN

URBITARTE sagardotegia



Erretegi modura zabalik

Erreserba telefonoa:
943 18 01 19

Ergoiena Auzoa

ATAUN



Festa ondorena

Astebete osoa iraun dute aurreten herriko jai nagusiek, eta makina bat istorio, albiste eta kontu utzi dizkigute. Kirola, musika eta aktibitate kulturalak izan dira programan tarte zabalena hartu duten arloak, eta batzuk gogora ekarriko ditugu. Giro alaia eta laguntasuna izan dira beste behingoz azpimarratzeko puntuak.

Koadrilen eguna

Lehen egunetik indartsu ekin zieten gazteek festei. Futbol jardunaldian zortzi taldek hartu zuten parte, eta ondoreneko afariak giro ederra jarri zuen gau osorako. 'Hein-neiken' taldeak finalean 5-2 irabazi zuen 'Harriketarrak'-en aurka.

Gazta erakusketa

Betiko lehiaketa-modua al-bora utzita, ikusleei arreta handiagoa eskaini zaie ekitaldi honetan. Batetik Amelia Jauregik gazta jendaurre-

an landu zuen, pausu guztiak esplikatu eta langintzaren nondik norakoak aipatu. Bestetik, epaimahaian zeuden kideek gazta epaitzerakoan zein irizpide erabiltzen dituzten jakin ahal izan zen. Jakingarria oso.

Txirrindu igoera

Festei izaera herrikoiagoa ematearren, orain hamar bat urte utzi zitzaion afizionatuen probak antolatzeari, eta horren lekuan herritarrentzat Ormaiztegitik igoera ipini. Jokin Matxinandiarrena heldu zen lehenengo, iazko irabazlea, 12:57ko denbora eginez, eta Iñaki Maiora profesional izandakoa bigarren. Gazteetan Jokin Sudupek eraman zuen trofeoa.

Sagardo eta txistor dastaketa

Festetan jan eta edan neurririk gabe egiten bada ere,



arrakasta nabaria izaten du dastaketa honek ere. Berrikuntza bezala, sagardoa txukunena eta estilo handienarekin nork ateratzen duen jakiteko proba bat egin zen, eta Jose Luis Bidegain nagusitu zen.

Beste zenbait kontu:

● Aspaldian ez bezala, San Roke Txiki eguneko afari-merienda ezin izan zen kanpoan egin, euri lanbroak eragotzita. 17 urte ba omen dira honelakorik gertatzen ez zela.

● San Lorentzotako mus txapelketa Jon Murua eta Josu Andolarentzat izan zen.

● Txakilikuarto auzoko fes-

tetan auzoko helduenaren oroigarria Izar Aundiko Juan eman zitzaion.

● Bolatan irabazle (13ko eta 16ko saioak kontuan hartuta): Pedro Lazkano; lehen herritarra: Joxe Ramon Aramendi.

● Tokan irabazle: Juan Mari Iñurritegi; lehen herritarra: Iñaki Maiz.

● Pilota partida: Kastellanos-Etxeberria nagusitu ziren Saralegi-Olaranen aurrean.

● Erbie elkarteko afarien zozketan zenbaki saritua: 733.

Aimar Maiz



Kizkitzako Amaren eguna irailaren 8an

Itsason San Bartolome jaiak pasatu berriak badira ere, oraindik ere herrian bada jai usainik. Irailaren 8an, ostira-lean, Kizkitzako Amaren eguna ospatuko da.

Eguerdiko 12etan Meza Nagusia izango da. Jarraian,

Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak jardungo dira giroa alaituz, Kizkitza eta Mandubia inguruan.

Gauean, Itsason jarraituko du jai giroak. Goizeldarte luzatuko da festa.



Kultur astea

Aurtengoan ere Kultur astea jadanik antolatuta dago. Irailaren 9an hasi eta 17ra arte ekintza eta hitzaldi ezberdinez osatutako astea izango dugu. Prestatutako egitaraua hau da:

Irailak 9, larunbata: 16:00etan, marrazki lehiaketa haurrentzat. 18:00etan, buruhandiak, sari banaketa eta merienda. 20:00etan, antzerkia, herriko haur eta gazteak prestatu eta antzeztua. 21:30ean, afari herrikoia herriko plazan.

Irailak 10, igandea: Jubilatuen eguna: 12:00etan Meza Nagusia, Zegamako Orkatz abesbatza eta Etxeberria eta Agirre bertsolariek lagunduta. Ondoren, Orkatz abesbatzaren emanaldia elizan. 14:00etan, bazkaria. Bazkal ondorena bertsolari eta trikitalariek alaituko dute.

Hitzaldiak

Irailak 11, osteguna: Mikel Zalbidek emana, 'Denboraren neurpideak'.

Irailak 12, asteartea: Xabier Andonegiren eskutik, 'Sektek

gaurko egoera'.

Irailak 13, asteazkena: Julian Bereziartuaren eskutik, 'Herentziatzko gaitxotasunak'.

Irailak 14, astelehena: Arantzadiko Joxean Mujikak emana, 'Trikuharriak'.

Irailak 15, ostirala: Alberto Zerainen eskutik, 'Everest' gaiari buruzko diapositiba emanaldia.


Antzinako arropen erakusketa

Aste osoan zehar antzinako arropen erakusketa ikusgai egongo da Kultur etxeko gelan. Bertan ikusi ahal izango diren jantzi eta oihalak Zerain eta inguruko herrietakoak dira, Karmele Goñik bere bildumatik utzitakoak.

Ordutegiak: astean zehar, 10:30etik 13:00etara eta 15:30etik 18:30era; asteburuan, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Azoka ekologikoa

Irailaren 17an, igandean, VI. Azoka ekologikoa izango da.



Aurtengoan ere, produktuen salmentaz eta ohiko ikuskizunenez gain zer ikusirik ez da faltako egunean zehar. Aurtengoan dena den, aldaketa nabarmenak izango dira. Izan ere, salmenta azoka goizez bakarrik izango da, 9etan hasi eta ordu biak arte.

Arratsaldean, antzinako erara erromeria izango da, 5etan hasi eta aimarikoak jo arte. Erromeria Arakama anai-arrebek eta Zeraingo ttuntunjoiekin alaituko dute. Bola jokoa ez da faltako, eta erroskileroa ere bertan izango da beste hainbat entretenigarritz gain. Ikuskizunak ere ugari izango dira: esate baterako, toleara, lixiba lehengo erara, errementaritzak, albar-kagintza, alpargatagintza, tai-

la edo egurra lantzen, ogi tailerra eta abar. Hau dena egun osoz ikusi ahal izango da.

Bazkari ekologikoa ere izango da. Txartela aurrez erreserbatu behar da Mandiora (943801505) edo Biolurrera (043761855) deituta. Goiz berean azokan ere erosi ahal izango da.

Bolatako emaitzak


Andramari bola txapelketa, Andramari eta San Roke egunez jokatu zen, bi egunetan ere partaidetza handia izan zuen. Lehen egunean 58 lagunek parte hartu zuten eta bigarrenetan 52k. Emaitzak adierazten duenez, lehiaketa nahiko borrokatua izan zen. Sailkapena honela geratu zen:

Andramari egunean: 1. Ibon Miner, 2. Joxe Mari Zelarainen (biak 36na birlarekin parekatuak), 3. Gilberto Juaristi eta 4. Joxe Ugalde (hauek ere 36na birlatara parekatuak).

San Roke egunean: 1. Juan Alustiza 36 birlarekin, 2. Joxe Antonio Ugarteburu 35 birlarekin, 3. Ramon Izagirre 34kin eta 4. Martin Lizeaga 33rekin.

Mari Flor Mendizabal

IDIAZABALEN APARTAMENTU ETA ETXEBIZITZAK ADARRAKO AUZO ZORAGARRIAN



- 1 eta 2 logelakoak.
- Kalitate goreneko materialak. Adarra kalitatea.
- Garajeak igogailu zerbitzuarekin. 1,4 milioitik aurrera.
- Irakaskuntza zentrua, Polikiroldegia, ... inguruan.

6 azkenak

686 414 901 - 943 450 721



INMOBILIARIA

adarra

ZURE NEURRIRA ERAIKITZEN DUEN INMOBILIARIA LA INMOBILIARIA QUE CONSTRUYE A SU MEDIDA

Mikeli Lopetegi.

64 urte.. Ezkioko-Itsasoko Urteaga-
haundi baserrikoa

Ordiziako azoka bizipoz

Altzagarra jaiotzez, ezkondata, Ezkio-Itsasoko Urteaga-haundi baserrian bizi da Mikeli Lopetegi. 65 urte beteko ditu urrian eta 6 urte zituenetik, Ordiziako azokara joaten da, bertako produktuak saltzera. Oraindik ere gustura joaten da Ordiziara, lagunak eta familiartekoak ikustearen aitzakiapen.

Altzagatik zaldiz jaisten ziren Ordiziara. "6 urterekin, eskolara joan aurretik amari trasteak jaisten nizkion zaldiz. Gero eskolara joan behar!", dio Mikelik. Igandetan ere egiten zen garai batean feria. "Goizeko 6,30etako mezetara joaten ginen Ordiziara. Igandetan ez ginen asko joaten. Garrantzitsuena asteazkenetako feria izaten zen. Baina fruta eta barazki asko izaten genuen etxean eta saldu egin behar". Dene-tik izaten zuten saltzeko: sagarrak, babarrunak, lekak, letxugak, azenarioak, tipu-

lak, porruak, muxurkak, aranak... "Fruta asko izaten genuen, urtero", esan digu Mikelik. Perretxikuak ere asko izaten omen ziren, "edozein lekutan ateratzen ziren".

Ezkio-Itsasora ezkondu zenean, goizeko 6etako autobusean joaten ziren Ordiziara. Baserriraino, autoan ibiltzeko biderik ez zuten artean. Baserriko bideak Itsasora doan bidearekin bat egiten duen lekuan, hiru auzotarrek txabolatxo bat zuten. Aurreko egunean bi asto, karga-karga eginda, txabolan uzten zituzten, hurrengo egunean, goizeko 6etako autobusa hartzeko. Aste guztiko erosketak ekartzen zituzten bueltan. Haiek ere txabolan utzi eta piskanaka igotzen zituzten baserrira.

Ezkondu eta handik 5 urtera egin zuten bidea. Orduan 4F autoa ekarri zuten. "Ezkio-Itsason lehenengo kotxea izan zen gurea".

Garaiak asko aldatu dira eta Ordiziako azoka bera ere bai. "Orain mahaiekin dotore jarrita egoten da. Lehen, lurrean zakuak jarri mante-

lak bezala eta han egoten ginen. Lan handia egin du Ordiziako Udalak. Neguan, hotz egiten zuenean, ur poltsa beroa ekartzen zigun ahizparen koinatak. Garai hartan ez zegoen gaur adina-ko arroparik. Orduan sasoi-a geneukan!", dio Mikelik irri-barrez.

Urritik apirilera Donostiara

Sagar asko izaten zuten Altzagako baserrian, klase ezberdinetakoa gainera. Hori dela eta, urritik apirilera aldera arte, Donostiako San Martin azokara joaten ziren. Astelehen, astearte, ostegun eta ostiralean joaten ziren, asteazkenetan Ordizian hutsik egin gabe. Sagar asko saltzen zuten. Perretxikuak ere bai, aurrez enkargatuta izaten zituzten gehienean.

Trenez joaten ziren Donostiara. "Geltokian karrete-roak egoten ziren. Korrika lekua hartzera joaten ginen, postu finkorik ez geneukan eta. Ingurutik gu bakarrik joaten ginen Donostiara", gogoratu digu Mikelik.

Azoka berezia

Irailaren 6an azoka berezia egingo da Ordizian. Sari ugari irabazitakoa da Mikeli, nahiz eta prestatzeak lan asko ematen duen.

Barietate handia edukitzen du Mikelik eta beti izan da probaketen aldekoa. Azoka berezian ondo saltzen omen du. "Kanpotik jende asko etortzen da eta beti eramaten dute zerbait. Iaz kalabazin eta kalabaza asko saldu zen. Gauza bitxi samar-rrak eramanez gero errazago saltzen da. Kanpoko jende-ari gustatzen zaie zerbait eramatea", esan digu.

Hori bai, bertako produktuek egiten duten prezioez kexatzen da Mikeli. "Diruari begiratu gero, askotan alper-alperrik jarduten gara. 10 urteko prezioetan ari gara saltzen".

Uztailaren 2an Ordiziako Idiazabal Gazta kofradiko kide izendatu zuten Mikeli. "Oso egun polita izan zen eta gustura gaude. Gure langintza errekonozitzea gauza handia da".



Jai zoriontsuak pasa ditzazuela!

HIDALGO
Bitxitegia - Erlojutegia - Opariak

Legazpi Kalea, 3 943 88 04 06 ORDIZIA

Diseinua
Berrikuntzak
Kalitatea
Garantia



HERRI BATASUNA

Ordiziar eta bisitari guztioi jai zoriontsuak opa dizkizuegu

ORDIZIA

Ordizia rugby elkarteak: indarberritzeko urratsak emanez

Ordizia Rugby elkarteak zuzendaritza talde berria du iaztik eta haven lehen helburua taldea sendotzea da. Honetarako bi lan nagusi dituzte: bata harrobia indartzea, haur eta gaztetxoak rugbyaren mundura inguratzea; eta bestea talde nagusia indartzea, honela babesle gehiago lortu ahal izateko eta klub bezala goraka joan ahal izateko. Bi helburu hauek ardatz hartuta izan gara Aitor Araña zuzendaritza taldekoarekin.

Rugby harrobia indartzeko eskualdeko eskola kiroleko arduradunekin harremanetan jarri dira eta aurtengo ikasturtean kirol eskolarren barruan rugbya bultzatzeko asmoa dute. "Ordizia bezalako herri batek bakarrik ezin du luzaro rugby taldea mantendu eta Goierriara zabaltzea beharrezko gaudela.

Lehen inguruko herrietakoak etortzen baziren ere, azken urteetan Ordiziako gaztetxoak bakarrik inguratu dira rugby eskolara. Eta Ordiziaz gain Goierriko taldea ere ba garenez zabaltzeko beharra ikusi dugu. Hau dela eta 10-12 urtetik aurrerako Goierri-tarrei zabaltzea nahi diegu taldea", azaldu digu Aitorrek. Ordiziara entrenamenduetara etortzeko behar den laguntza emateko prest dade horretarako.

Umeek rugby eskolan jolasen bidez, ariketa dibertigarriak eginez ikasten dute kirol hau. Kadeteetatik aurrera federatuta jokatzeko aukera izaten dute. Aitorrek dionez, "eskoletako kirol arduradunen esanetan, rugbya da kirol guztien artean jokatzen hasten direnetatik gehienek jarraitzen dutena, fidelitate handiena duena. Beste hainbat kiroletan hasieran haur askok ematen dute izena baina denborarekin gehienek utzi egiten dute, horrek esan nahi du nolabait

rugbyak 'engantxatu' egiten duela".

Jolasen bidez ikasi

Haurrak rugbya gerturatzeko askotan arazorik handiena gurasoen beldurra izaten da. Aitorrek animatu egin nahi ditu: "Umeak jartzen dituzu belardi batean baloi batekin jokoak eginez jolasean eta ez da atzera botako. Jolas hauek gainera haseran oso bigunak izaten dira. Kirol gogorra dela ezin da ukatu, kontaktoa dago, fisikoki gogorra da baina horretarako prestatzen da rugbylaria. Kirol osoa, gorputz guztia lantzen da, burua ere bai eta batez ere talde lana lantzen da. Adibidez iaz umeetan bakarrik hartu zuen min, besoa hautsi zuen, baina aldageletan erorita".

Talde lanaren garrantzia

Rugbya, besteengandik, oso kirol ezberdina da. "Guk batez ere talde lana egiten dugu. Emaizta onak lortzeko

ezinbestekoa da talde lana egitea eta hori asko lantzen da, asko motibatzen da. Hori dela eta rugby jokalarien artean koadrila sortzen da. Horrela zen orain dela zenbait urte eta horrela da oraingo gazteen artean ere. Gaztea talde horretan sartzea lortzen ez bada, 16-18 urtera iritsi eta askok utzi egiten dute", dio Arañak.

Rugbya kirol bezala oso erlaxatua da eta gainera partidua bukatu ondoren elkarrekin parranda egiten dute. Baina hala ere gazteak jokatzen mantentzea kirol guztien duten arazoa da. "Saski-baloian adibidez 5ek jokatzen dute baina rugbyan 15ek eta deialdian 22 izen jarri beharra dago. Hala ere guk orain 25 jokalaria ditugu eta ez dugu arazorik. Izan dira 55 jokalaria eta bi talde izan ditugun urteak eta orain hori ezinezkoa da". Beraz, beharaka jarraitu aurretik neurriak hartu beharra ikusi dute ordiziarrek.

ORDIZIAN eta BEASAINEN



- Etxebizitzak
- Apartamentuak
- Lokal komertzialak
- Garajeak
- Kalitaterik oneneko eraikuntzak

s.a.

Filipineta, 13 - behea 943 88 49 50 ORDIZIA



**OINETAKOAK
OSAGARRIAK**

J. M. Barandiaran Pl., 3
943 88 61 77 ORDIZIA



Ordiziarrek aurtan lortu dute lehen aldiz, kamixetan 3 esponsor txiki jartzea.

Kluba indartu

Klub bezala irauteko aurrera-pauso bat eman beharra ikusi dute, haunditu beharra. Orain nolabait esateko 3. mailan daude ordiziarrek, lehen biak Espainia mailakoak dira eta 3. hau Hego Euskal Herri mailakoa da. Iazko denboraldian horko txapeldun geratu ziren. Ondoren igoera fasea jokatzearan, joko mailan ezberdintasun handia somatu zuten. "Helburuak izan behar ditugu. Jokalariak motibatu beharra dago, gora igozteko aukera hori ikusi behar dute, ez beti maila honetan jarraitzera mugatu. Gure helburua, beraz, pauso hori eman eta 2. mailara igotzea

da. Maila horretan beste taldeek atzerritarrak dituzte eta azpiegitura egokiagoak dituzte", dio Arañak. Hau ikusita klub bezala handitu nahi dute, bai diru aldetik, bai mugitzen den jende kopurua aldetik... "Dena kate bat da, taldea beheran badago jenderik ez da erakartzen. Eta erakarri ezean diru-sarrerak txikiagoak dira. Haurrak interesatzeko ere garrantzitsua da taldea goian egon eta gauza garrantzitsuak egitea".

Jokalari atzerritarrak

Aurrerapauso hori emateko kanpotik jokalaria ekartzeko aukera aztertzen ari dira.

Ekialdeko herrialdeetan egoera nolakoa den ikusita, Ukraniar harremanak dituztenez, posible da lana eskainiz jokalaria ekartzea. "Han maila polita dute eta hain onak ez izanda ere oso haundiak dira, eta hori da hemen dugun arazoetako bat. Gestioak egiten ari gara, baina ez dakigu etorriko diren edo noiz etorriko diren. Baina baditugu 3-4 lantoki jokalaria hauei lana emateko prest", aitortu du Aitorrek.

Zuzendaritza berria lan egiteko gogoarekin eta plantamendu berriei irekita dago. "Alderdi horretatik bultzada bat eman nahi diogu taldeari. Baina beti ere he-

rriko izaera mantenduz. Kanpokoak ekarriagatik jokalaria berdinek jarraituko dute". Pausoa egin aurretik Axio Araña, entrenatzaileak, jokalariekin hitz egin zuen, eta hauek ados azaldu ziren asmo berriekin. "Zenbait jokalaria uztail eta abuztu gutxia entrenatzen aritu dira, korrika egin, pesak egin, lanerako gogo handiarekin daude, hauentzat motibazio gehigarria da kanpoko jokalaria ekartzea. Iaz ligan ondo ibili arren, igoera fasean ikusi zen puntu bat falta zitzaila, bai fisiko aldetik eta baita presentzi aldetik, bolumen aldetik. Plantila nahiko motza da eta jubenilak igo artean jokalaria behar-rean gaude", dio Arañak.

Rugby giroa berreskuratu

Ordizian orain dela urte batzuk izan zen rugby giroa sortu nahi dute. "Komunikabideetan ere gutxiago agertzen gara... bultzada bat eman beharrean gaude. 28 urte daramazkigu jokatzeko eta pena da piskanaka behar-runtz joan eta egunen batean desagertzea". Hori ez gertatzeko lanean ari dira. Hori bai, beti ere amateur mailan jarraitu nahi dute.



INPRIMATEGIA

URDANETA

KOLOREZKO OFFSETA - FOTOKONPOSAKETA - TIPOGRAFIA
DISEINU GRAFIKOA ORDENAGAILUZ

Urdaneta, 26 ☎ 943 88 04 46 Faxe: 943 16 14 07 ORDIZIA

Fandango

- ✖ Musika tresnak
- ✖ Megafoni alkileria
- ✖ Baxu eta gitarra klaseak

☎ 943 16 10 73

Domingo Unanue, 2 **ORDIZIA**

Lirain



Jai zoriontsuak denoi!



GOIAGI
OKINDEGIA

Ogigintzan onenak!

Etxezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 943 160501

- ◆ Egurrezko labeen egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

Barandiaran Taldea, 2
ZALDIBIA ☎ 943 880737

Etxebizitzak

salgai

➡ Lazkaon pisua salgai, 86 m²koa. 943180470.

➡ Idiazabalen 3 urteko etxebizitza salgai. 2 logela ditu. 627869700.

konpartitzeko

➡ Jendea behar da datorren ikasturtean Zaragozan pisua osatzeko. 943806010.

➡ Pertsona bat behar da Bilboko Alde Zaharrean pisua osatzeko. Maider (943883880). Amagoia (943885587)

➡ Pertsona bat behar da Salamankan pisua osatzeko. 943651358.

➡ Iruñean pisua osatzeko neska bat behar da. Unibertsitateetatik gertu. 943886519.

➡ Datorren kurtsoan Elgoibarren pisu bilanabilen ikaslea naiz. 943889067 (Aitor).

➡ Bilbon pisua osatzeko bi lagun behar dira. 943180128 - 943180422

errentan

➡ Landatan dagoen kanpin karabana alokatzen da, uztaila eta abuztuan. 5 lagunentzako egokia. 946231796.

➡ Nafarroan, Isabatik gertu, apartamentua alokatzen da. Mikel. 943885463 - 656767402.

➡ Benidormen apartamentua alokatzen da, 4 edo 5 pertsonentzat. Itsasoari begira. Erdigunean. Aire egokitua du. 943887361.

➡ Apartamentua alokagai Laredon. Hondartza ondoan. 943795280.

➡ Oropesan (Castellon) apartamentua alokatzen da. Lehenengo ilaran. 943884374 - 943882156.

➡ Benidormen apartamentua alokatzen da, 2 edo 4 lagunentzat. Erabat ekipatua. Itsaso bistak baditu. Afalorduetan deitu. 943882467.

➡ Urbasa ondoan etxea alokatzen da, irailerako, asteburu eedo zubietarako. Handia eta guztiz hornitua. 948 539381.

Ibilgailuak

salgai

➡ Land Roverra salgai, 88 modeloa, motza. SS-N matrikuladuna. 943800359.

➡ WW California Coach furgoneta salgai. Diesela. Kanpinarako ekipatua: sukalde, hozkailua, bi ohe, aulki mugikorak, irratikaseta, 4 baffle... 74.000 km. 943552453.

➡ Fiat Tipo autoa salgai, SS-AJ. Beti garajeon edukitakoa. Segurua 2001. urtera arte. 350.000 pezeta. Aitor. Lan orduetan deitu. 943161854.

➡ Ford Orion salgai, SS-AB. Egoera onean. Kubieta eta enbrage berriak. 943780227. Igor.

➡ Kawasaki ZX GR motoa salgai. 3.000 kim-rekin. 7 hilabete-ko garantia. Alarmarekin. Egoera onean. 943806552.

➡ Opel Astra familiarra salgai, turbo diesela. 50.000 km. SS-AW. 609775000.

➡ Yamaha TZR 50 c.c. motorra salgai. Extrekin. Ongi zaindua. Prezio onean. 667239378.

Bestelakoak

salgai

➡ Eskuko telefonoa eta Olivetti idaz makina salgai. 943882278.

➡ Movil-home bat salgai, Hondarribiako kanpin batean. 2 logela, jangela, garbigailu eta guzti. Jatorduetan deitu: 943 16 08 53.

➡ Conver 13, karro denda salgai. Bi abantzeekin. Denetik du. Prezio interesgarria. 943886788.

➡ 2 logelako kanpina salgai. 50.000 pezetan. 943 886521.

➡ Negurako egurra, txikituta, nahi baduzu, deitu gauez telefono honetara: 943 161638. Etxeetara eramaten da.

opari

➡ 1996. urtetik gaurdainoko Euskaldunon Egunkariak oparitzen dira. Beste euskal alizkari eta liburu batzuk ere oparituko zaizkio Egunkariak eramaten dituenari. 943 88 90 53.

Lana

eskaerak

➡ Komertzial bat behar da, anbiziotsua. Inbertsio txikia. Errentagarritasun handiena. 20:00etatik aurrera deitu: 630892975.

➡ Sukaldari bat behar da asteburuetarako. 943886243.

➡ Emakumezko bat behar da, goizetan, etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko. Gauez deitu. 943161874.

➡ Jatetxeko sukalderrako emakume bat behar da. Esperientziaduna. Euskalduna. Kortexa beharrezkoa. 943880044.

➡ Mutil bat behar da obratan lan egiteko. 943161032.

➡ Neska gaztea eta euskalduna behar da tabernan zerbitzari gisa lan egiteko. 943880000.

eskaintzak

➡ Neska euskaldun bat eskaintzen da umeak edo adineko jendea zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluduna. 943885783.

ZINEA

ORDIZIA:

Laburmetraiak:

Irailak 7, osteguna:

19:30ean: Asier Altuna eta Telmo Esnaola 'Txotx' eta '40 ezetz' eta Helena Tabernaren 'Altsasu 1936' laburmetraiak, Barrena Kultur Etxean.

musika

ORDIZIA:

Irailak 8, 'Gabriel Aresti ad libitum' poesia eta musika ikuskizuna, Barrena Kultur Etxean, Josetxo Goia (saxoa), Pello Ramirez (txeloa) eta Josetxo Azkonaren (ahotsa) eskutik. 22:30ean.

BEASAIN:

Irailak 9, Drindots musika taldea, Loinazpe ikastetxean 23:00etan.

bertsoak

ORDIZIA:

Irailak 9, Bertso saio berezia Herri Antzokian, 22:30ean: 'Goierriko Bertso Eskola - 18 urte'. Diapositiba emanaldia, bat-bateko saioa, bertso-jarriak, antzerkia...

ikusentzunekoa

BEASAIN:

Irailak 20, Joseba Ugalde Egañaren eskutik, 'Aconcagua harrizko jagolea' proiektzioa, Udal Euskaltegia, 10:00etan.

erakusketak

BEASAIN:

Irailaren 15era arte, Iker Dorronsoro beasaindarraren pintura erakusketa, Aterpe tabernan.

Irailaren 16tik urriaren 6ra arte, Irungo Komiki Elkartearen eskutik, komiki erakusketa, Aterpe tabernan.

Osasun jardunaldiak Beasainen

Irailaren 18tik 21era bitartean, hitzaldi sorta izango da Sana-tana Dharma joga elkarteak antolatutako, Udaletxeko Batzar aretoan, arratsaldeko 7,30etan. Egunez eguneko hitzaldiak hauek izango dira:

● **Irailak 18, astelehena:** 'Barnealdearen eta osasun integralaren aurkikuntza' hitzaldia, Tomas Diazen eskutik.

● **Irailak 19, asteartea:** Amagoia Muruamendiaraz eta Trinidad Altirasverezek eskutik, 'Tristura eta depresioa' eta 'Autoestima eta zoria' hitzaldiak.

● **Irailak 20, asteazkena:** Shara Martinen eskutik, 'Osasun fisiko eta mentala: boterea zeure barruan dago' hitzaldia.

● **Irailak 21, osteguna:** Eva Garcia eta Isabel Flores hizlari-
en eskutik, 'Emozioen hezkuntza' eta 'Komunikazioa fami-
lian' hitzaldiak.

GOARDIAKO FARMAZIAK

Astegunetan: Urbizu

(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 88 02 32.

Irailak 9-10: Cuesta

(Nafarroa Etorbidea, 39 - Beasain). 943 88 05 87.

Irailak 16-17: Jauregi

(Santa Maria, 2 - Ordizia). 943 16 01 52.

mendi-irteerak

Beasaingo mendizaleak:

Irailak 10, Gorbeara.

Irailak 17, Zumarraga-Beasain.



**SEGURA
IRRATIA**

F.M. 89.2

**EGUNEKO
24 ORDUAK
ZUREKIN**

IKASTEK AKADEMIA

ikastekakademia@latinmail.com

Joan Iturralde, 5 BEASAIN
☎ 943 160 120

6-14 urte tailerrak
Arrazoimena, atentzioa eta sormenaren garapena
✓ Ortografia eta kaligrafia
✓ Irakurmena eta idazmena: Irakurritakoaren ulermena
Idatzitako espresioa
✓ Matematika
✓ Autonomiaren garapena

14-18 urte tailerrak
Arrazoimena eta autonomia pertsonalaren garapena
✓ Matematika
✓ Hizkuntza tailerra: Euskara, ingelera, gaztelera
✓ Ortografia eta hiztegia
✓ Idatzitako espresioa
✓ Testu komentaketak

Eskola laguntza
✓ Ikasketa maila guztiak
✓ Lehen hezkuntza (6 urtetik aurrera)
✓ DBH, DBHO: matematika, fisika, kimika, lengua, euskara, ingelera, etab.
✓ Unibertsitate maila: ingeniari-tza, farmazia, enpresaritzak, kimika...
✓ Ziklo formatiboak
✓ Helduen frogak

Goierriko akademia integral bakarra hezkuntzako profesionalak zuzendua

2000-2001 IKASTURTEA - MATRIKULA ZABALIK

IKASTAROKAK	MATRIKULA	MAILAK
2, 3, 4 eta 5 ordu goizez, arratsaldez eta gauez	Irailaren goizez eta arratsaldez	Euskalduntze Alfabetatze EGA

Udalak ikasleei matrikula subentzionatuko die.

GOIZTIRI



EUSKALTEGIA

INFORMAZIO GEHIAGO ETA MATRIKULATZEKO

ORDIZIA: Santa Ana Ikastetxea ☎ 943 88 91 74

BEASAIN: Kale Nagusia, 5 - 3. ☎ 943 88 93 40

LAZKAO: Elosegi, 16 - 2. ☎ 943 88 91 74



Itsasoko abeslariak

1974. urtean, Itsasoko elizan ateratako argazkia da. Mezatan abesten zuen taldea da bertakoa.

Ezkerretik eskubira: Izaskun Barrenetxea, Anttoni Okariz, Lurdes Okariz, Pepi Arzelus, Pilare Mujika, Pili Larrañaga, M. Jesus Arzelus, Kizkitza Barrenetxea eta Maite Arzelus.

Organista: Joxe Miel Zufiria.



ITSASOKO OSTATUA

- ✓ Etxeko sukaldaritza.
- ✓ Eguneroko menua 800 pta.
- ✓ Udaberrian terraza zerbitzua

Aldez aurretik erreserba egiteko:

☎ 943 88 03 15

UNTXUNDEI

garajea



OSINALDE

karrozategia

☎ 943 88 28 21

☎ 943 16 07 06

ORMAIZTEGI



AZURMENDI

Harategi - Urdaitegia

Victor Mendizabal, 2 ☎ 943 88 47 65 ORDIZIA

San Inazio, 6 ☎ 943 16 16 74 - 943 16 13 28 BEASAIN



- ✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.

- ✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...

- ✓ Eguneroko menua eta karta.

MANDUBIKO BENTA

jatetxea

MANDUBIKO GAINEAN

Urolatik Goierriko bidean

Tfnoa.: 943 88 26 73

Itsasoko Ostatuaren ustiaketa esleitzeko deia



Itsasoko Ostatuaren
ustiaketa esleitzeko
Ezkio-Itsasoko Udalak
lehiaketa deitu du.

Interesatuak bere esku
dituzte udaletxeko bulegoan
lehiaketa arautzen dituzten
pleguak.



**EZKIO-ITSASOKO
UDALA**

Tel.: 943 72 13 03



BEASAIN
Antzizar Kiroldedia

ALKARTASUN EGUNA

IRAILAK 17 2000

Abertzale guztiok Beasaina!



**eusko
alkartasuna**